

**EDUCACIÓN PLÁSTICA
HEZKUNTZA PLASTIKOA**

Nerea ETXARRI JIMENEZ

**ARTISTA LOKAL ETA
GARAIKIDEAK ESKOLAN
LANTZEAREN GARRANTZIA:
DORA SALAZAR ETA TXUSPO
POYO/
ARTISTAS LOCALES Y
CONTEMPORANEOS EN LA
ESCUELA: DORA SALAZAR Y
TXUSPO POYO**

TFG/GBL 2014

upna
Universidad
Pública de Navarra
Nafarroako
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

**Grado en Maestro de Educación Primaria
/
Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua**

**Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Primaria**

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

**ARTISTA LOKAL ETA GARAIKIDEAK ESKOLAN
LANTZEAREN GARRANTZIA: DORA SALAZAR
ETA TXUSPO POYO/
ARTISTAS LOCALES Y CONTEMPORANEOS EN
LA ESCUELA: DORA SALAZAR Y TXUSPO POYO**

Nerea ETXARRI JIMENEZ

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA**

Ikaslea / Estudiante

Nerea ETXARRI JIMENEZ

Izenburua / Título

Artista lokal eta garaikideak eskolan lantzearen garrantzia: Dora Salazar eta Txuspo Poyo / Artistas locales y contemporaneos en la escuela: Dora Salazar y Txuspo Poyo

Gradu / Grado

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Primaria

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a

Nerea DE DIEGO MURILLO

Saila / Departamento

Psikologia eta pedagogia / psicología y pedagogía

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2013/2014

Seihilekoa / Semestre

Udaberria / Primavera

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Lehen Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Lehen Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Lehen Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktiketan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituena. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Lehen Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Hitzaurrea

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako moduluak Lehen Hezkuntzako ikasleek dituzten gaitasunak zein beharrak ezagutzeko eta identifikatzeko bidea eman dit. Irakasleok haurren ezaugarri hauek garatzeko izan behar dugun jarrera ulertzen eta hauek gauzatu ahal izateko metodologia berrietara irekia egotearen garrantzia irakatsi dit.

Didaktika eta diziplinako moduluak lan hau jorrazeko ezin bestekoa zen begirada kritikoa eraikitzen lagundu dit. Hezkuntza artistikoak eskaintzen dituen sormen eta adierazpen baliabide eta aukera anitzez baliatu naiz arte lokala eta garaikidea hezkuntzan lantzeko proposamenak bideratzeko.

Halaber, Practicum moduluak bidea eman dit orokorrean eskola askotan ematen den hezkuntza artistiko sinplista hausnartu eta konturatu ahal izateko. Hortaz, alor honetan gauzak aldatzeko eta jorratu daitezkeen aukera ezberdinak aztertzeko grina piztu dit.

Beste alde batetik, ECI/3857/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira “Antecedentes” eta “Conclusiones” atalak baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

Laburpena

Arte Hezkuntzan arte garaikidea eta lokala lantzeak duen garrantzia goraipatzea da lan honen helburu nagusia. Gaur egungo artea Lehen Hezkuntzako ikasgelan lantzeak aukera paregabea eskaintzen du egungo gizartea ikusteko, interpretatzeko eta ulertu ahal izateko. Arte garaikideari lokala batuz gero, bakoitzaren herriari buruzko artearekiko ezagutza eraikitzeke aproposa izango da. Lan proiektuetan oinarritutako metodologia bidez, arte lokala eta bertako ondarearekiko hurbilpena emango da, bertako artisten obrak aztertuz ikaskuntza esanguratsua eraikitzeke aukera suertatuz.

Hau dela eta, lehenik Dora Salazar eta Txuspo Poyoren obren inguruan jorratutako lan didaktikoen bilketa eskaintzen da. Ondoren proiektuen bidezko metodologian oinarritutako errekurtso didaktikoak proposatzen dira, Altsasuko ikastetxeetan baliagarriak izango direlakoan. Poyoren lanarekin, ondare lokalaren errespetua eta errestituzioa, zein babeslekuaren ideia landuko dira. Salazarren kasuan, egungo gizarteak inposatzen dituen rol eta estereotipoekin hautsiz, norberaren autoestimua eta identitatea garatzeko eta espresatzeko aukera suertatuko da.

Hitz gakoak: arte hezkuntza; arte garaikidea; arte lokala; ondarea; kultura bisuala

Resumen

El objetivo principal de este trabajo es recalcar la importancia de trabajar el arte contemporáneo y local en la educación artística. El arte actual en Educación Primaria aporta una gran oportunidad para analizar, interpretar y entender la sociedad actual. Sumándole a lo contemporáneo lo local se adquirirán saberes del arte de nuestro pueblo. Utilizando la metodología de trabajo por proyectos, basándose en las obras de Dora Salazar y Txuspo Poyo, se dará un acercamiento al arte local y a su patrimonio, Primero, se presenta una recopilación de los trabajos didácticos que se han realizado sobre estos artistas. Después, se exponen unos recursos didácticos sobre estos artistas. Mediante la obra de Poyo se trabajará el respeto por el patrimonio local y la

restauración así como la idea del refugio. Además, con la obra de Salazar se trabajará la autoestima y la personalidad rompiendo con los roles y estereotipos de nuestra sociedad.

Palabras clave: educación artística; arte contemporáneo; arte local; patrimonio; cultura visual

Abstract

The main aim of this project is to stress the importance of working local artists in “Arts and Design” subject.

Nowadays, the arts in Primary School give us the opportunity to analyze, interpret and understand the society in which we live. By bringing this knowledge, we will learn about Arts within our community.

Using projects methodology we could connect more closely with our cultural heritage.

At the beginning, there is a compilation of some didactic projects about two local artists: Dora Salazar and Txuspo Poyo. Then, there are some didactic resources about their artistic works. By following Poyo’s work we will motivate the respect for local heritage, restoration and “refuge’s idea”. In addition, basing on Salazar’s work we will improve pupils’ personality and self esteem, breaking our society’s stereotypes and roles.

Keywords: arts education; contemporary arts; local arts; heritage; visual culture

Aurkibidea

Antecedentes	1
1. Marko teorikoa	4
1.1. Arte hezkuntzaren zergatiak	4
1.1.1 Arte hezkuntzaren arrazoiak, funtzioak eta helburuak	4
1.1.2 Kultura bisuala hezkuntzan	10
1.1.3 Arte hezkuntzaren curriculum	11
1.1.4 Hezitzaile eta irakasleen papera	16
1.2. Arte garaikidea eta hezkuntza	18
1.3. Arte lokala lantzearen justifikazioa	22
1.3.1 Proiektuen bidezko metodologia	22
1.3.2 Ondarea eta artea	25
2. Artisten proiektu didaktikoen informazio bilketa	30
2.1. Dora Salazar	30
2.1.1 Biografia	30
2.1.2 Artea eta hezkuntzaren inguruan egindako lanaren informazio bilketa	31
2.2. Txuspo Poyo	35
2.2.1 Biografia	35
2.2.2 Artea eta hezkuntzaren inguruan egindako lanaren informazio bilketa	36
3. Errekurtso didaktikoak	41
3.1 Dora Salazarren obra lantzeko errekurtso didaktikoak	41
3.1.1 Sarrera	41
3.1.2 Garaiaren hautaketa	41
3.1.3 Metodologia	43
3.1.4 Helburu orokorrak, oinarrizko konpetentziak eta edukiak	43
3.1.5 Jarduerak	44
3.1.6 Ebaluazioa	52
3.2 Txuspo Poyoren obra lantzeko errekurtso didaktikoa	53
3.2.1 Sarrera	53
3.2.2 Garaiaren hautaketa	53
3.2.3 Metodologia	54
3.2.4 Helburu orokorrak, oinarrizko konpetentziak eta edukiak	55
3.2.5 Jarduerak	56
3.2.6 Ebaluazioa	70
Conclusiones	71
Agradecimientos	73
Erreferentziak	75
Eranskinak	77
Eranskin I	78

ANTECEDENTES, OBJETIVOS Y CUESTIONES

Siempre me ha interesado e importado la educación artística. En mi opinión no se le da la suficiente importancia en el ámbito educativo y basándome en la experiencia de mi practicum, me he dado cuenta de que es cierto. En la mayoría de las escuelas la educación artística se centra exclusivamente en la expresión plástica. La didáctica de la expresión plástica, por lo general, se limita a la enseñanza de técnicas como el dibujo, la pintura, o la fotografía. Y a la enseñanza teórica de conceptos como, la forma, el color, o al conocimiento de ciertos artistas. Estos conceptos son necesarios, pero limitar la educación artística de este modo es, a mi entender, un grave error. Los niños/as de primaria tienen necesidades vitales que el arte puede satisfacer. El proceso creativo no aparta las técnicas o las teorías artísticas, sino todo lo contrario; los niños/as tienen que comprobar que la creación es una forma de entender, expresar, comprender, reflexionar y gozar con el arte y desde el arte.

Sabiendo la importancia del arte en la educación, me gustaría decir que nuestra sociedad tendría que olvidar los prejuicios que tiene sobre la utilidad del arte en el ámbito educativo y debería valorarlo más. Así pues, en este proyecto quiero demostrar que existen mil y una razones para que el arte tenga el hueco que merece en nuestra educación. En este caso, mi intención es recalcar la importancia de trabajar a través de lo cercano para los niños/as en la escuela. Para ello, propongo utilizar el arte contemporáneo y local mediante las obras de artistas locales.

De esta manera, este proyecto ha sido realizado en dos partes, por un lado tenemos el marco teórico, que en el he recopilado información sobre la importancia de trabajar la educación artística y local en el aula. En el marco teórico hablo de las razones de una educación artística, citando sus funciones y objetivos, el currículo de la educación artística y la importancia de la cultura visual. Seguido hablaré del arte contemporáneo y educación. Partiendo del arte contemporáneo, expongo la importancia de trabajar el arte local en la educación artística. Para ello, defiendo la importancia de la metodología basada en proyectos y la importancia de entender y respetar en patrimonio cultural y artístico personal y colectivo. Por otro lado, he analizado el

material didáctico que hay sobre estos artistas. Para concluir, basándome en toda la información expongo unos recursos didácticos.

Uno de los principales objetivos de este proyecto es subrayar la importancia de la educación artística y fomentar el arte contemporáneo y local además del patrimonio artístico en el aula. Para llevar a cabo esto, es necesario señalar las ventajas de trabajar con artistas en la educación. Normalmente se tiende a trabajar con artistas más conocidos y se olvidan los más cercanos y contemporáneos. Generalmente en las escuelas aparecen los mismos artistas y sus obras más conocidas como Miró, Kandinsky, Van Gogh etc. Éstos son muy valorados en la crítica artística, pero no es muy lógico trabajar con autores de las Vanguardias del siglo XX, en vez de trabajar con artistas contemporáneos y locales, ya que estos pueden ayudar a interpretar y entender la sociedad que nos rodea; por lo tanto yo creo y defiendo que puede ser muy interesante y enriquecedor trabajar con estos artistas.

Sakana es un valle situado al noroeste de Navarra, en los límites con Guipúzcoa y Álava. En este valle hay muchos artistas y no ha sido fácil elegir con cuáles quería trabajar. Creo que los niños y niñas de Alsasua deberían conocer la obra de todos los artistas de la zona o por lo menos la de los locales (Txuspo Poyo, Dora Salazar, Itziar Nazabal, José Ramón Anda...).

Partiendo del análisis de la información que he recopilado en el Museo de Navarra, Centro Cultural Iortia de Alsasua, Iñigo Aritza Ikastola y la información y ayuda que me han facilitado los artistas en los cuales profundizo a lo largo del trabajo: Dora Salazar y Txuspo Poyo, otro de los objetivos ha sido recopilar información sobre proyectos didácticos que se han realizado basados en la obra de estos artistas.

El último objetivo ha sido realizar una parte práctica en la que mediante unos recursos didácticos propongo cómo trabajar la obra de estos dos artistas de Alsasua en la escuela.

Una de ellas es mujer, porque además de querer defender a los artistas locales quiero darles importancia a las mujeres artistas. Creo que es muy importante hablar y trabajar

con la obra de ellas. En la historia muy pocas mujeres han sido citadas y valoradas por sus labores, investigaciones etc. Los hombres han tenido mucha más importancia y facilidades, sin embargo, las mujeres que hoy en día son reconocidas han tenido que luchar mucho más para llegar a donde han llegado. Las palabras de la misma Dora Salazar hablan sobre la diferencia de mujeres y hombres en el ámbito del arte:

“Sin duda hay más presencia de hombres. Sin embargo los planteamientos de las mujeres me parecen importantísimos. Aun así, no creo que haya igualdad de oportunidades. Salvo algunas excepciones muy concretas, por lo general en las exposiciones hay mayor presencia de hombres. Esto siempre ha sido así, en todas las disciplinas. Para que esto cambie los comisarios/as tendrán que cambiar sus esquemas. No creo que las propuestas de las mujeres vayan a defraudarlos/as.”

Salazar cuestiona los roles que condicionan a las mujeres en la mayoría de sus obras. Un ejemplo de esto son los corsés que ha utilizado muchas veces mediante los que quiere representar la opresión femenina. Sin embargo, además de la opresión busca otras maneras de contar la realidad de las mujeres. La obra de Dora Salazar me parece muy interesante para poder transmitir estos valores y que cada alumno/a sea capaz de expresar su cuerpo mediante la escultura.

Por otro lado está Txuspo Poyo un artista multidisciplinar que tiene una gran habilidad para estimular la imaginación de los espectadores. En su obra se puede encontrar de todo, celuloideas, palabras fotográficas, videos, imágenes tratadas, escultura, animación virtual etc. En resumen, se puede decir que la obra de este artista se ocupa de la invención de un sistema de limitaciones autoimpuestas y de la exploración de sus posibilidades estéticas. Su obra en todas sus formas, depende de la supresión o de la revelación de información sobre historias que quiere contar a los espectadores. Todas sus narraciones presentan características de tipo lúdico. Como artista local que es y aprovechando la ubicación de la “casa árbol” en Alsasua, mayormente me he basado en este trabajo del 2008 de Txuspo.

1. MARKO TEORIKOA:

1.1 Arte hezkuntzaren zergatia

1.1.1 Arte Hezkuntzaren arrazoiak, funtzioak eta helburuak

Atal honi hasiera emateko, Arthur Eflandek (2002) proposatzen duen arte hezkuntzaren helburu orokorra aipatu nahi dut. Norbanakoa bizi den paisai kultural eta soziala ulertzeko gaitasuna eratzen lagunduko du arte hezkuntzak. Arte lanek inguratzen gaituen mundua adierazten dute metaforen bidez. Mundu hau interpretatzeko gaitasuna arte interpretatzeko gaitasunekin batera eskuratuko da, ekintza inteligente eta moralki sentiberak gauzatzeko fundamentua proportzionatuko duelarik.

Helburu honek, arte hezkuntzak norbanakoan duen garrantzia islatzen du, hortaz arte plastikoek duten hezkuntza balioa justifikatzeko pisuzko hiru arrazoi orokor esan behar ditut. Lehenik eta behin, aipatu beharra dago, arte plastikoak norbanakoaren garapenean lagungarriak direla oso. Hezkuntza prozesuan dagoen pertsona osorik garatzen laguntzen dute. Adimenaren garapen gisa arteak ekarpen handia egiten du. Ekintza artistikoek irudimena, intuizioa eta sentsibilitatea gehiago erabiltzen dute adimen hutsak baino.

Horrez gain, arte plastikoen eta ahalmen espazialaren arteko loturaren garrantzia azpimarratzea nahitaezkoa da. Adimen espazialak espazioan elementuak eta figurak antzeman, asmatu, aldatu eta eraldatzearekin dauka zerikusia eta horien irudikapenarekin ere. Adimeneko ahalmenaren barruan dauden lau dimentsioak (zenbakizko arrazonamendua, arrazoiketa abstraktua, hitzezko arrazonamendua eta arrazonamendu espaziala) hauetatik bat gutxienez arte plastikoen irakaskuntzarena izango litzateke. Arte plastikoetan, bi dimentsioko lekuetan bolumenak, espazioak eta sakontasuna irudikatu egiten dira; hau egitean, adimen espaziala erabiltzen ari dela esan beharra dago.

Arte plastikoak ahalmen ezberdinekin lotzen dira, baina sormena loturarik estuena duena da. Sorkuntza terminoa erabiltzen da, izan ere artean kopiek zein errepikapenek ez dute lekurik, originaltasunak ordea bai. Sormenaren argudioak pisu handia dauka arte hezkuntzan, sormena modu ireki batean estrukturatua dagoen aktibitatea den heinean, metafora eta narrazioaren bidez esanahi berriak lortzen ditu. Era berean, sormena gure gaitasun arrazionalerako esentziala da, esanguratsuak diren konexioak, inferentziak lortzeko eta arazoak gainditzeko nahitaezkoa. (Efland, 2002). Sormenak garrantzi hain handia badu hezkuntzan, merezi duen inportantzia eskaini beharko litzaioke. Ken Robinsonen (2006) hitzetan “La creatividad es tan importante en la educación como la alfabetización”.

Kasu askotan esaten da sorkuntza prozesurako urrats markatu batzuk daudela. Urrats horien artean prestakuntza premiazkoa dela esaten da. Dena den, ezin da ukatu haurren kasuan edozein jakintza mailarekin sortzeko gai direla. Sorkuntza prozesuak haurrari jakintza berriak emango dizkio, izan ere prestakuntzarik onena sortze prozesua bera baita. Momentuan duen jakintza maila errespetatuz sortzeko gaitasuna ematea, etorkizunerako sorkuntzarako prestakuntzarik hobereana izango da. (Lowenfeld, 1977) Beraz, ez dago zalantzarik haurrek txikitatik naturaltasunez eta sentsibilitatez beteriko sortze lan originalak egiten dituztela, sormenerako gaitasuna dela eta.

Bost zazpi urteen artean gizarteko hau gehienek espresio aipagarria lortzen duten euren lanetan. Garai hauetarako, haurrek marrazketaren ezagutza minimoak barneratu dituzte eta marrazkien bidez zuzenean adierazteko gai dira, horrela bada, trazu edota linea bakoitzarekin barruan dituzten sentimenduak eta mundua ulertzeko dituzten moduak islatzen dituzte. Etapa hau garapen artistikoaren momentu aipagarrienetarikoa da, Gardnerren (1993) ustez etapa hau urrezko aroa da artearen garapenari dagokionez. Baina aro hau berehala bukatu daitekeenaren arriskua dagoela esan beharra dago, eta hau ekidin ahal izateko zeregin handia dutenak irakasleak eta familiak dira besteak beste.

Adin hauetan sortzeko gaitasuna galtzen joaten denaren arriskuaren ideia bera aipatzen du Nafarroako Unibertsitate Publikoko Imanol Agirre (2000) irakasleak:

“Si tuviéramos que decidir sobre cual ha sido el mayor reto que ha debido de abordar la didáctica de las artes en las primeras etapas del proceso educativo, casi con seguridad nos habríamos de referir a problema de la progresiva pérdida de potencia creadora e imaginativa que se manifiesta en los escolares conforme van creciendo.”

Sormenaz gain, arte plastikoek pertzepzioaren eta sentsibilitatearen garapen gisan egiten duten ekarpen garrantzitsua aipatu beharra dago. Jakin badakigu, arteak oinarritzko zentzumenekin zerikusi zuzena duela, hau da, ikusmen eta entzumenarekin. Hortaz, erraza da ondorioztatzea artearen bidez pertzepzio ahalmenak eta sentsibilitatea fintzen direla. Ezagutza guztiak zentzumenen bidez hasi egiten dira. Arte hezkuntza zentzumenetan trebatzeko diziplinarik hoberena bada, ondorioztatu daiteke arte hezkuntza irakaskuntzako arlo guztietan nahitaezkoa dela. (Lownfeld, 1977)

Beraz, arte hezkuntza hain garrantzitsuak diren zentzumenak hoberen trebatzen dituen arloa bada, diziplinartekotasunez artea gainontzeko arloekin uztartu beharko litzateke beti edo ahal den heinean behintzat. Zentzumenak lantzeaz gain, edozein gai edo balore jorratu daitezke, izan ere arlo honetan lantzen diren edukiak ez dira itxiak, artea etengabe aldatzen baita eta horregatik izaera ireki batekin lan egiten jakin behar da. Honekin zeharo erlazionaturik dago Bitartean Eragilearen hitz batzuk:

“Artearen eta sormen fenomenoaren kontzeptu globalizatzailea dugu, zeinek arteak osotasuntzat hartzen baititu, dimentsio anitzeko fenomenotzat, kulturari eta bizitzari ere lotuta, eta ez diziplina itxitzat, gordetzat. Ideia horretan oinarritzen da guk diziplinarteko arte hezkuntzaren alde egitea, non diziplina guztiak sartzen ahal diren: poesia, zinema, pintura, musika, eleberria, antzerkia, dantza, e.a.” (Bitartean, 2007)

Arte plastikoak hezkuntzako gainontzeko arloekin uztartu daitezkeenaren ideari beste argudio garrantzitsu bat gehitzeko, adierazteko eta komunikatzeko ahalmenaren

garapenerako egiten duen ekarpenaren garrantzia aipatu beharra dago. Haurra bakarra dela ulertu behar dugu eta ezin da ahaztu inguratzen duen mundua ikusteko eta ulertzeko bakoitzak modu ezberdinak dituela. Haur bakoitzak artea modu batean ulertzen du, izan ere haurra dinamikoak dira, beraientzat artea pentsamenduaren lengoia baita. Bada, norbanakoaren erritmoa errespetatzea ezinbestekoa da.

Horretaz gainera, nortasunaren garapenean arte plastikoak egiten duen ekarpena ere oso interesgarria dela esan beharra dago. Norbanakoaren adierazpenarekin, nia garatu daiteke. Afektuzko eta adimeneko nahaste eta arazo gehienak norberarengan konfiantza urria izateagatik gertatzen dira. Hori dela medio, esan daiteke haurrak sortzeko duen gaitasuna behar bezala landuz horrelako arazoak ekidin edota hobetu daitezkeela. Jakin badakigu, arteak niaren garapenean sekulako garrantzia duela, haur txikienetan batez ere. Haatik, hau artea hezkuntzan lantzeko arrazoi bakarra izango balitz ere nahikoa izango litzatekeela goraipatu behar da. (Lowenfeld, 1977)

Norbanakoaren adierazpenerako, emozioa eta sentimenduaren garapena eta lanketa ezinbestekoak dira. Arteak sentimendua antolatzen du eta zentzumenean bidez forma bat ematen dio. Sentimenduak sentitzen ditugu baina horrekin bakarrik ez ditugu argitzen, artea da bakarra hori egin ahal duena. Sentimenduak behar bezala ulertzeko, adierazteko gai izan behar gara. Hortaz, artearekin sentimenduak landuz sentsibiltatea trebatzen da eta bide batez, pertsonen bizi kalitatea hobetzen da. Hau da, arte arloan ematen diren prestakuntzekin, sentsibiltatea handitzen eta garatzen da eta ondorioz norbanakoaren esperientziak eta egunerokoa hobetuko dira.

Bigarren pisuzko arrazoia arte plastikoaren irakaskuntza eta ikaskuntzarekin garapen sozialean trebetasuna eta kulturaren demokratizazio ematen dela da. Hezkuntza sozializazioan eraginik handienetarikoa duena dela esaten da. Arte plastikoaren bidez pertsona bakoitza bere kultura barruan integartzeko aukera ematen da. Marián Lopezek (2010) ere ideia hau azaltzen du:

“Arteak atxikimendu soziala esnarazten du. Horregatik, artearen funtzio garrantzitsuenetariko bat beste gizabanakoekiko ulermena eta komunikazioa behar bezala garantzea da.”

Trebetasun sozialaz gain, artearen irakaskuntzak garapen ekonomikoan dakarren onuraz hitz egitea beharrezkoa da. Gure gizartean kultura bisualak duen garrantzia kontuan hartuz, argi dago diseinuaren arloa eta irudi eta soinu industriak gizarte garatuenetariko sektoreak direla. Kalitatezko diseinuak sortzeko, diseinu onak beharrezkoak dira, hortaz, etorkizuneko diseinugileak ongi formatu behar dira hezkuntzan. Baina argi eta garbi utzi behar da diseinuaren irakaskuntzaren garrantzi ekonomikoa ez dela bakarrik diseinatzaile berrien prestaketara mugatu behar. Diseinatzaileek egiten duten lana ingurukoek ulertzen eta osatzen ez badute ez dago ezer egiterik. (Marín Viadel, 1991)

Orain arte arrazoi sendoak eta anitzak aipatu ditut arte plastikoaren irakaskuntza behar bezala justifikatzeko. Baina horiek ikaslearentzat eta gizartearentzat onak direla nabarmentzea ez al da –neurri batean– esperientzia artistiko eta estetikoaren izaera bera urratzea? Arteak ez al dira izan behar norberaren gogoia betetzekoak, egitearen atseginarengatik bakarrik eta ezer espero izan gabe egitea merezi duen gauza bat? (Marín Viadel, 1991)

Hirugarren eta azken arrazoiak Marín Viadelek proposatutako galderaren erantzuna dakar, izan ere arte plastikoaren berezko balioari buruz hitz egiten du. Ildo honetatik, artea irakasteko bi justifikazio orokor daude. Alde batetik, justifikazio kontestualista, lanak artean dauzkan ondorio instrumentalei buruz hitz egiten duena. Ikuspuntu honen arabera oinarri nagusia gizartearen beharrianak dira eta hortik abiatu behar da artea. Beste alde batetik, justifikazio esentzialista dago zeinak artearen apartekotasuna eta berezkitasuna goraiatzeko duen. Giza esperientzian eta ezagutzan arteak soilik egin dezakeen ekarpen bakarra azpimarratzen da, justifikazio honen arabera beste ezerk ezin du eskaini arteak guzti honi eskaintzen diona. Ekarpen hauek bere ezaugarri apartei esker ematen dira. Ideia bera Elliot Eisnerren (1972) hitzek aipatzen duten:

“... artea giza kulturaren eta esperientziaren aparteko esparrua da, eta arteak giza esperientziari egin ahal dion ekarpenik handienak bere ezaugarri bereziekin harreman zuzena dauka. Arteak gizakiaren hezkuntzari eskaini ahal diona, hain zuzen ere, beste arlo batzuek eskaini ezin dutena da.”

Arte hezkuntzak irakaskuntzan dituen funtzioei dagokionez, esan funtzio garrantzitsu bat giza esperientzian ikusizkoari zentzua ematea dela. Mendeetan zehar artea baliatuz espiritualak zena irudikatu ahal izan da. Arteak ez du soilik balio ikusmen sublimeak artikulatzeko, norbanakoaren kezak, ametsak, beldurrak eta abar kontuan hartzen ditu eta metafora bisualen bidez irudikatzen ditu. Bakoitzaren sentsibilitatea aktibatzeke ere baliogarria da.

Artelanez gizarte kritikatzeke balio dute eta balore pila bat azaleratzen dituzte. Hortaz, artistak gizarte kritiko bezala funtzionatzen duela esan daiteke. Gure gizarte kritikatzeaz gain fantasiako mundu batera hedatzeko gaitasuna dute.

“Sirve para ayudarnos a descubrir el sentido del mundo de la visión, desempeña importante papel en el desarrollo de la vida de la sensibilidad y funciona como un imagen de lo que podría ser la vida. “ “Rebela lo inefable y amplia nuestra consciencia. En resumen las funciones del arte son múltiples. Si realizar tales funciones es tarea de la educación, entonces difícilmente puede negarse el lugar del arte en dicha tarea. ¿Por qué entonces teniendo el arte tan diversas funciones, puede ser tan débil su lugar en la educación?” (Eisner, 1972)

Gauzak modu kritiko batean ikusteko gaitasunarekin bat dator interpretatzearen ideia. Arteak kognitiboki oso garrantzitsuak dira interpretatzeko gaitasuna eraikitzeke egoerak sortzen dituztelako. Bizitzan interpretatzea premiazkoa da, zinez egunerokotasunean askotan ez baitugu ezagutza fidagarriarik, edota datu nahasiak zein konflikto baten aurrean kokatzen gara. Arte lanak interpretatzearekin ez da bakarrik horiekiko ezagutza eraikitzen, interpretatzeko gaitasuna askoz haratago doa, bizitzako egoera korapilatsu edo ulertezinen aurrean interpretatzeko trebetasuna ahalbidetzen dute. (Efland, 2002)

1.1.2. Kultura bisuala hezkuntzan

Egun bizi garen mundua aldatzen doa eta mundu bisual batean bilakatzen ari da. Bertan, informazio eta komunikazio teknologiek dibulгатzen dituzten irudi anitzek eragina dute gizabanakoetan. Irudi hauek inguratzen gaituen mundua eta pertsonen errepresentazioak adierazten dituzte. Kultura bisuala bizitzen dugu eta horren parte garen heinean, honen helburua ez da bakarrik irudiak interpretatzeko gaitasuna izatea, irudiak esfera sozialean egonkortu behar dira, norbanakoaren eta kolektiboaren desio, plazera, oroimen, imajinazio, identitate eta subjektibitatearen estrukturan. (Hérendez, 2002)

Hezkuntzak ezin du errealitate hau ekidin, hori dela eta, mundua bisualizatzeko modu berri honi erantzunak eman beharko dizkio. Arte hezkuntza aldatzen dago, alde batetik, arte bisualek sortu duten egoerari erantzuteko, eta bestetik, hezkuntza erreforma orokorre dagokionez. Egungo aldaketaren printzipiorik esanguratsuen, egitearen eta ikustearen interakzioan zentratzen da, arte bisualen ikaskuntzaren sustraietan dagoena.

Kultura bisuala irakastea errealitate garaikideari erantzun egoki bat ematea da. Horretarako arte bisual guztiak behatu behar dira eta esanahi, erlazio, influentzia eta proposamen guztiak kontuan hartu behar dira. Arte bisualen forma guztiak pertsonen ideien, sinesmen eta jarreraren espresioak dira. Norbanakoaren zein kolektiboaren identitateak azalerazten dituzte. Artearen bidez identitatea garatzen da, hortaz, arte hezkuntzaren norabide berriak ikasleen identitateak kontuan izan behar ditu, curriculumaren planifikazioan eta garapenean. (Freedman, 2002)

Arte bisualen irakaskuntza identitatea garatzeko lagungarriak den arren, ez da nahikoa. Ikaskuntza honekin ikasle guztiek kultura bisualaren irudiekiko kontzientzia kritikoa garatu behar dela azpimarratu beharra dago. Izan ere, gure gizarte bisualean, irudiek indar handia dute eta horiek kritikoki interpretatzeko gai izan beharko gara. Hurrei dagokionez, esan beharra dago gizarte bisual honetan hamaika mezu barneratzen dituztela, oharkabean den arren.

Haurrek marrazki bizidun guztiak ikusten dituzte bisualki deigarriak suertatzen zaizkielako. Baina kultura bisualaren irudi guztietan bezala, marrazki bizidunen atzean mezu asko daude. Disney adibide esanguratsua dugu, honek mezu tradizionalak, sexistak, arrazistak eta oso gogorrak transmititzen ditu. Horrelako gauzekin kontu handia izan behar dugu, marrazki “politak” direnez haurrei atentzioa deitzen diete eta bide batez mezuak barneratzen dituzte inkontzienteki bada ere. Mezu hauetan printze urdinaren ideia oso ohikoa izaten da, emakumea ezkondu behar da eta bizi osoan zainduko duen gizon bat bilatu beharko du. Orokorrean irudi hauetako pertsonaiak oso estereotipatuak dira, emakumeak argalak eta ederrak izan ohi dira eta gizonak handiak, indartsuak eta kementsuak.

Kultura bisuala kontuan hartzen duen arte hezkuntzaren bidez, haurrek barneratuta dituzten estereotipo eta eskemekin erabat apurtzen dela esan beharra dago. Marrazki bizidunen adibidearekin ikusi dugun bezala, haurrek irudien bidez estereotipo eta eskema asko bereganatzen dituzte eta tamalez hauek errepikatzeko joera izaten dute. Arte hezkuntza ematerakoan, eskema berdin bat errepikatzen baldin bada, hori estereotipo bihurtuko da, baina hau arte bisualak kontzienteki lantzen dituen arte hezkuntza egoki baten bidez guztiz ekidin daitekeela esan beharra dago.

Orain arte esandako guztiagatik, nahitaezkoa da fundamentuzko arte hezkuntza bat sustatzea gure hezkuntzan. Gainontzeko arloek duten garrantzi berdina duela argi eta garbi goraiatu beharra dago. Nire ustez garrantzi handiagoa duela esan beharra dago, arte hezkuntzarekin haurren sormena lantzen eta sustatzen da, gainerako erloetan baino askoz ere gehiago. Ken Robinsonen (2006) hitzetan “La creatividad es tan importante en la educación como la alfabetización”. Beraz, hezkuntzan arituko garenok zeregin handia dugu honekiko.

1.1.3 Arte Hezkuntzaren curriculum

Arte hezkuntzaren zergatiaz hitz egiten ari naizela, arte hezkuntzaren funtzioak, arrazoiak eta helburuak eta kultura bisualak duen garrantzia aipatu dudanez bezala, ezinezkoa da curriculum aipatu gabe geratzea. Hortaz, jarraian LOMCE legeak Arte Hezkuntzarako proposatzen duen curriculumaren borradorea eta Marin Viadelek,

Estructura y componentes del currículo de Educación Artística proposatzen duenaren arteko alderaketa egingo dut.

LOMCE legearen berridazketa Arte Hezkuntza arloa bi ataletan banatzen dute, hezkuntza plastikoa alde batetik eta hezkuntza musikala bestetik. Atal bakoitzean hiru azpiatal edo bloke daude. Kasu honetan, hezkuntza plastikoari dagozkionak aipatu behar ditut. Lehenengo blokeak irudiaren azterketari erreferentzia egiten dio (bidual edota audiobidualki). Bigarrena artearekin zerikusia duten eta izan duten kontzeptuetan zentratzen da. Hirugarrenak ikuspuntu grafikotik garapena kontuan hartzen du matematikako geometriatik abiatuz.

Ricardo Marinek proposatzen duen curriculum arte hezkuntzarako aipatzea interesgarria dela esan beharra dago. Hitzaurrian aipatzen duen bezala, arte hezkuntzako curriculumak izaera irekia izan behar du. Lehen Hezkuntzako arte hezkuntzako curriculumean zentratuz, hiru dimentsio orokor egon behar dira. Batetik, ikusten ikastea, jakitea edo ulertzea. Bestetik, egiten ikastea, aurkeztea edota transformatzea. Azkenik, emozionala, modu sentiberan gozatzen ikastea.

Hiru dimentsio hauetan oinarrituta, helburuak edukiak, metodologia eta ebaluaketa prozedurak aterako dira. Arte hezkuntzaren oinarria arte bisualen ikasketa izan beharko dela esaten du. Curriculum proposamen honetan balore pila bat landuko dira artearekin batera, hala nola, berdintasuna, demokrazia, askatasunerako hezkuntza, bakea, ingurugiroarekiko errespetua eta abar.

Lehen hezkuntzako tartean oso garrantzitsua da ikasleengan auto-konfiantza sustatzea, eta hori lortzeko motibagarriak izango diren ariketak baliatuko dira adin tarte bakoitzari egokitzuz.

Nire proiektuan defendatzen dudana bezala, Marinek proposatzen duen honetan ere arte garaikideari merezi duen garrantzia emango zaio. Kontuan izan behar da arte garaikideak egun bizi ditugun arazo sozialak azaleratzen dituela.

LOMCE legearen borradorean aipatzen den bezala Marinenak ere arte hezkuntzak haurren esperientziak eta emozioak adierazten lagundu behar diela goraipatzen du. Kultura bisualen irudien haurrean iritzi kritikoak izaten lagundu behar die. Laburbilduz, artea maitatzean datza, intentsiboago bizi ahal izateko.

Curriculum honen helburuak, Lehen Hezkuntzarako proposatzen diren orokorrak dira:

1. Kultura bisual garaikidearen irudien aurrean iritzi kritikoa garatzea.
2. Arte lengoaien kodigoak jakite, espresio pertsonalerako baliatzeko.
3. Teknika eta prozesu artistikoak ezagutzea eta erabiltzea.
4. Arte bisualak kulturen eta historia testuinguruetan ulertzea.
5. Norbanakoaren produkzio artistikoei buruz hausnartzea.
6. Norbanakoaren produkzioetan konfiantza bereganatzea.
7. Arte lanak estimatzea eta interpretatzen ikastea.
8. Irudi edota objektu artistikoa sortzea.
9. Arte bisualen garrantzia barneratzea.

Edukiei dagokionez, lau bloke orokor ezberdintzen dira:

1. Lengoi artistikoak. Teknika, prozesu eta bideak.
2. Kultura bisual garaikidearen baloreen azterketa.
3. Arte bisualak kultura eta historiaren testuinguruetan.
4. Teknologia berriak irudiak sortzeko.

Arte Hezkuntzako curriculumaren metodologia egoki batek honakoak kontuan eduki behar dituela aipatzen du:

1. Aktiboa izatea: norbanakoaren esperientzien bidez emaitza hoberenak lortzen baitira.
2. Parte-hartzailea: ikaskuntzaren partaide izan behar dira ikasleak.
3. Integratzailea: ariketa ezberdinen bidez lengoi artistiko ezberdinak txertatzea.

4. Inguruari lotua: inguru hurbila kontuan izatea proposatze diren ariketetarako. Nire proiektuaren beste helburu orokor bat honetan datza, arte lokala, ezagunagoa dena ikasleentzat baliatzea.
5. Diziplinar-tekoa: proiektuen bidez beste arloekin batera lan egitea.
6. Ikertzailea: behaketaren bidez hurrek esperientzi propioak izan ditzaten.

Marinek proposatzen duen curriculumarekin bukatzeko, ebaluazio prozedura aipatuko dut. Nolakotasunari garrantzia emango zaio arte hezkuntzan. Honako hiru irizpide orokor hautatu dituzte. Lehenik, kultura bisualaren irudien aurrean bereganatu den kritikotasuna konprobatzea. Bigarrenik, lengoai artistikoen kodeen ulermena konprobatzea. Azkenik, bide eta tekniko artistikoen erabilera egokia konprobatzea.

Beraz, argi dago LOMCE legearen berridaztearen artean eta Ricardo Marinek proposatzen duenaren artean sekulako aldea dagoela. LOMCE-ko curriculumaren hitzaurrean agertzen diren hitzak eta praktikan orokorrean gauzatzen den arte plastikoaren arteko kontraesan sakona dagoela azpimarratu behar dela uste dut. Hitzaurre honetan arte hezkuntzari garrantzia ematen zaio, baina benetako errealitatean ez da horrela ematen:

“Las manifestaciones artísticas son una de las aportaciones inherentes al desarrollo de la humanidad. No puede haber un estudio de la historia del hombre en el que no se contemple la presencia del Arte en todas sus posibilidades.” “Al igual que ocurre con otros lenguajes, el ser humano utiliza tanto el lenguaje plástico como el musical para comunicarse con el resto de seres humanos.” “Entender, conocer, e investigar desde edades tempranas los fundamentos de dichos lenguajes van a permitir al niño el desarrollo de la atención, la percepción, la inteligencia, la memoria, la imaginación y la creatividad. Además, el conocimiento plástico y musical permitirá el disfrute del patrimonio cultural y artístico, valorando y respetando las aportaciones que se han ido añadiendo al mismo.” (LOMCE Legearen Hezkuntza Artistikoari dagokion curriculumaren berridaztearen hitzaurrea)

Hitzaurrean esandako guzti hori horrela dela dakigu, orduan zergatik ez diote arte hezkuntzari merezi duen garrantzia ematen? Artea Hezkuntzan adituak diren zenbait autoreek zergatik exijitzen dituzte beste proposamen batzuk?

Galdera honi erantzuna emateko, Imanol Agirrek (1997) arte hezkuntzak merezi duen garrantzia eman behar zaiola aipatzen du: “Zoritxarrez, gaur egun eskolak oraindik Arteari bizkarra emanez bizi direla esan daiteke. Eta eskola-kulturaren ardatzik nagusienetakoa dela kontuan hartzen badugu, agerian geldituko da jarrera honen larritasuna. Hortaz, inolako zalantzarik gabe eta lehenbailehen gure ikastetxeak Arte Hezkuntzarako baliabidez janzten hasi beharko dugu.”

- Eskola Praktiketara izan dudana esperientzia:

Eskola Praktika hauetan Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan egon naiz. Hezkuntza plastikoan ematen zutena tamalez ez zela oso egokia esan beharra dago. Curriculumak ez dio behar duen garrantzia ematen eta horrez gain, irakasleak ez daude behar den bezala formatuak artean. Nire esperientzian ikusi izan dudana gatik aurrean aipatutako helburu, eduki, metodologia eta abar goitik behera ahaztu egiten direla konturatzeko balio izan dit.

Egon naizen denboraldi guztian, ikusi izan dudana bakarrik marrazki “libreak”, eredu batean oinarritutako collageak eta horrelakoak izan dira. Irakasleak estereotipoak errepikatzen behartzen zituen ikasleak “ mutil horrek ez ditu eskuak”, “margotu belarra behar den bezala, berdez” eta horrelako hamaika adibide gehiago ikusi izan ditut.

Nire praktika aldiak ikusi dudana ez da soilik eskola honetan gauzatzen, tamalez, egun ikastetxeetan aurrera eramaten den arte hezkuntzaren praktikak asko dauka hobetzeko. Izan ere, gizarteaz gain, eskolak ere eragina izaten du haurren espresio naturala eta espontaneoaren galeran. Irakasleen jarrerak zerikusirik handia izaten dute guzti honetan. Zenbait irakasleek koloreen, proportzio edota margotzeko moduen eskema zehatzak inposatzen dizkiete ikasleei. Arrazoiak helduen gustuak eta haurren espresatzeko moduen artean dagoen aldea da, eta guzti honekin lortzen den bakarrik

haurra artea euren burua espresatzeko modutzat erabiltzeko aukera horren galera da. Espresioaren galera hau ekiditeko modu bakarra helduaren parte hartze hori deuseztatzea da, izan ere hauek ez dute autoritaterik ikasleen espresioaren garapenean esku hartzeko. Hortaz, irakasleek “zer da?” , “margotu hobe” eta horrelako aginduak erabat ahaztu beharko dituzte. (Agirre Arriaga, 2000)

Horixe bera Lowenfelden (1977) hitzetan entzun daiteke: “si los niños pudieran desenvolverse sin ninguna interferencia del mundo exterior, no sería necesario proporcionarles estímulo alguno para su trabajo creador. Todo niño emplearía sus impulsos creadores, profundamente arraigados, sin inhibición, seguro de sus propios medios de expresión”.

Irakasleek arte hezkuntzan egiten dituzten akats hauengatik, hurrengo puntuan arte hezkuntza egoki bat bermatzeko hezitzaile eta irakasleen paperari buruz hitz egin behar dut.

1.1.4 Hezitzaile eta irakasleen papera

Aurretik aipatu izan dudan bezala, arte hezkuntzari dagokionez baliabide didaktiko eta materialen hutsunea ikusita, irakasle edo hezitzaileek paper garrantzitsua dute hutsune hori hobetu ahal izateko. Kasu batzuetan diru arazoak diren arren, orokorrean arte plastikoarekiko dagoen utzikeria edota ezjakintasuna dira egoera honen iturburuak. (Agirre, 1997)

Hori dela medio, arte hezkuntza irakatsiko duten hezitzaile eta irakasleen papera oso garrantzitsua da. Hasteko, barneratuta ditugun hainbat gauza alde batera utzi behar ditugula esan behar da, hala nola hurrek marrazkiak egiten dituztenean, helduok “zer den” galdetzeko joera izaten dugu, eta galdera xume horrekin haurren sortzeko duen askatasuna erabat murrizten eta baldintzatzen dugu. Behar bada, haur horrek ez du ezer marraztu, agian trazu askeekin gozaten zegoen; baina guk egindako galdera horiekin haurrak baldintzatzen ditugu eta “zerbait zehatza” marraztera behartzen ditugu. Hortaz, irakasleek ohitura asko aldatu behar dituzte eta arte hezkuntzan formazioa jasotzen hasi behar dira.

Huarteko Arte Garaikidearen Museoan, VACA proiektua jarri zuten martxan irakasleak artean eta arte hezkuntzan formatzeko helburuarekin. Aurrera atera den bigarren edizioan (VACA II) ikaskidetzako esperimentazio esparru bat lantzeko proiektu baten erara egin da. Edizio honen helburu orokorra Huarte Zentroan esparru bat sortzea da, zeina irakasleek prestakuntzari dagokionez dituzten beharren eta interesen eragile izango den. Arte praktiken bitartez ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuak partekatu nahi dituzten hezkuntza formaleko Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasle eta hezkuntza ez formalean diharduten horientzat da. Bertan lantzen denaz gain, irakasle bakoitzak bere ikasgelan arte garaikideari buruzko arte proiektu bat aurrera eraman beharko du. (Centro de arte contemporáneo Huarte)

Honakoak dira formazio saio hauen helburuak:

- Artearen ideia prozesu gisara garatzea.
- Arte garaikidea ikasgelan zeharkako tresna gisa sustatzea eta, era berean, arte garaikidea eduki eta formatu gisa lantzea.
- Sormena garatzea ikaskuntza-erkidegoak berak sortutako prozesu berrien bidez.
- Lankidetzan lan egitea, eta erabakiak, denborak eta edukiak eragile guztien artean auto-kudeatuz sinergia berriak sortzea.
- Lan-metodologia proiektuen bidez ezagutzera ematea, zer posibilitate duten ikasgelan, bai eta haien diziplinaz gaindiko izaera eta sare-jarduna ere.

Horrelako formazio saioak premiazkoa direla esan beharra dago, oso pozgarria da gertuko esperientzia hauen berri izatea. Arte hezkuntzan gauza asko aldatzeko eta hobetzeko daude. Irakasle askok paso egiten duten arren, gauzak biziki aldatzeko grina duten irakasleak egon badaude, VACA I eta VACA II formazioetan parte hartu dutenak kasu.

Orain arte esandako guztiagatik, nahitaezkoa da fundamentuzko arte hezkuntza bat sustatzea gure hezkuntzan. Gainontzeko arloek duten garrantzi berdina duela argi eta

garbi goraiatu beharra dago. Arte Hezkuntzaren zergatiaren atal honekin bukatzeko Read-ek (1973) esaten duen bezala hezkuntza guztia artearen bidez landu edo bideratu behar denaren ideia aipatuko dut.

«Beraz, abiapuntua hau da: hezkuntzaren helburu orokorra gizaki bakoitzaren banakotasunaren hazkundera sustatzea da, eta aldi berean horrela lortutako banakotasuna norberaren talde sozialaren batasun organikoarekin harmonizatzea.»... Horrenbestez, adierazteko moduen lanketa gisa defini daiteke hezkuntza – haur eta helduei soinuak, irudiak, mugimenduak, tresnak eta lanabesak egiten irakastean datza –. Gauza horiek ondo egin ahal dituen gizakia ondo hezitako gizakia da. Soinu onak egiteko gai bada, hizlari ona, musikari ona, poeta ona izango da; irudi onak egiteko gai bada, pintore edo eskultore ona izango da; mugimendu onak egiteko gai bada, dantzari ona; tresna edo lanabes onak egiteko gai bada, artisau edo eskulangile ona. Pentsamenduaren ahalmen guztiek, logikak, memoriak, sentsibilitateak eta adimenak prozesu horietan parte hartzen, eta prozesu horietan, hain zuzen, ez da baztertzen hezkuntzaren alderdi bat ere. Eta prozesu horiek guztiek artearekin daukate zerikusia, artea soinu, irudi, etab.en taxuera ona, ez besterik. Hortaz, hezkuntzaren helburua artistak sortzea da, adierazteko modu batzuetan zein besteetan trebeak diren pertsonak, alegia.»

Read-ek proposatzen duen hezkuntzaren helburua artistak sortzearen ideiarekin erabat ados nago. Aipu honek gure gizartean hausnarketa interesgarri eta mamitsua sor dezakeela esan beharra dago, ideia honek hezkuntza guztia birplanteatzeko pentsatzea ahalbidetu dezake.

1.2 Arte garaikidea eta hezkuntza

Gaur egun, gure gizartean masa komunikabideengatik influentzia handia izaten ari gara. Guzti honek giza sentsibilitatean aldaketa bat eragiten ari du eta egungo artetik gertuago gaude. Artean, masa komunikabide eta mundu audiobisualen etengabeko harremanek gauza errealak eta imajinarioak nahasten dituzte.

Arte garaikideak ikuslearen partaidetzaren garrantzia azpimarratzen du. Sormen prozesuan ikuslea sartzea ahalegintzen da arte garaikidea, hau posiblea izateko ikuslea behar bezala prestatua eta formatua egon beharko da, bestela ezinezkoa izango da. Jakintza minimo batzuk beharrezkoak dira parte-hartze kontziente baterako. Beraz, guzti hau lortu ahal izateko hezkuntza beharrezkoa da. Arte didaktikaren bidez gauzatu behar da, izan ere honek beste begirada bat eskaintzen digu. (Gutiérrez Párraga, 2008)

Arte ikusle bezala, arteak espazio ireki bat eskaintzen digu gure esperientzia propioak bizitzeko eta honen bidez begiratu eta hausnartzeko. Animo egoeran eragina izaten du eta jakintza eta plazer iturri bat izan daiteke zeinak satisfazio intelektuala sor dezakeen. Prozesu osoan zehar plazer hau artista berak eta ikusleek bizi dezakete.

Hezkuntza artistikoarekin bete behar diren helburu asko daude. Arte hezkuntzaren helburu orokorrak honakoak dira: (NAEA, 1998)¹

- Ikusmenaren garapen egoki bat ahalbidetzea.
- Ederrarekiko gustua garatzea.
- Errepresentazio grafikoen bidez adierazteko gaitasuna jasotzea.
- Sormen inpultsoa garatzea.

Helburu guzti hauek gaur egungo artearekin elkarloturik daude eta posiblea da hauek garatzea egungo artearen ikaskuntzaren bidez. Arte garaikidearekin ikasleen esperientzia artistikoetan forma eta espresioak elkarrekin uztartzen dira. Horrela, honakoak trebatuko dira:

- Imajinazioa estimulatuko da.
- Ezagutza kritikoak aktibatuko dituzte.
- Material artistikoekin esperimentatzeko aukera ikustea inolako beldur edo trabarik gabe.
- Inpresio sensorialak analizatzea.
- Ikus lengoaia ezagutzea.

¹ Teresa Gutierrezek *La necesidad pedagógica del arte contemporáneo* testuan NAEA 1998 zitaten du.

- Instalazio kontzeptu eta espazioarekin esperimentatzea.
- Material industrialak artistikoki erabiltzea.

Praktika aktiboak garrantzi handia dauka artea ikasterakoan. Arte hezkuntza ariketa ludikoen bidez proposatzen bada, interes handiagoa piztuko da. Modu asko daude, baina oso baliotsuak eta eraginkorrak diren bi aukera aipatu behar ditut, museoak eta ikasgeletan gauzatu daitezkeen tailerrak.

Batetik, museoetara irteerak eta hauetan antolatzen diren tailerren parte hartzeak arte hezkuntzari dakarkion onurak aipu egin nahi ditut. Museoetan arte hezkuntza emateko orduan perspektiba ezberdinak dauden arren, hezkuntza aktiboa edo aurkikuntzaren bidezko ikaskuntzan oinarritzen dena goraipatuko dut. Perspektiba hau jarraitzen duten museoak dibertitzeko gunetzat ikusten dira, hau da, informala eta dinamikoa den aisialdiko gune bat bezala. Hezkuntza interakzioaren bidez ematen da eta ikusleen partaidetza aktiboari garrantzia ematen zaio, horretarako, prozesu aktiboak erabiliko dira. Museo hauetan, hezkuntza espresionista mugitzen da zeinak ikusleak euren kabuz espresatzeko aukerak uzten dituen. Ongi pasatzearen helburuarekin, museoeko materiala ikerketa eta prozesu ezberdinen bidez aurkitzeko aukera izango dute partaideek. Hau guztiaz gain, esperientzia sentsozial anitzak eta komunikazioa sustatzen dira. (López, 2005)

Arte garaikideko museo asko gaur egungo artea ikuslegoari hurbiltzen ahalegindu dira. Hau lortzeko, museoetan tailerrak, ekintza ludikoak eta abar antolatu dituzte arrakasta handiz. Hauetan aitzindaria izan den bat Parisko Centre Georges Pompidou museoa dugu. Honetan, hasteko museoan buelta bat ematen dute eta azalpen teorikoak ematen dituzte jarraian praktikara pasatzeko. Ikusitako erakusketan oinarrituta ariketa ludiko bat proposatzen dute. Bukatzeko hausnarketa bat zabalitzen dute arte garaikidearekiko ikusleek dituzten aurreiritzi eta estereotipoak deuseztatzeko. Guzti honekin, museo hauetan artea bizitzara hurbiltzea lortu nahi dute. Askotan museoetako bisitak aspergarrizat hartzen dira eta ideia horrekin hautsi nahi dute. Horretarako, pedagogia aktibo bat erabiltzen dute haur, gazte zein helduentzat egokitzen dena. Helburua honakoa da “egitea hobe ikusi ahal izateko”. (Gutiérrez Párraga, 2008)

Museoetan arte hezkuntzari dagokionez egiten den ekarpen didaktikoari buruz hitz egiten gaudela, Julián Soriano, IVAM-eko (Instituto Valenciano de Arte Moderno)² zuzendarietarikoa baten hitzak aipagarriak dira oso: “Espazio bat proposatzen dugu, leku bat non sorpresak gertatu, emozioa sortu eta animo egoera baikorrak eman daitezkeen. Gutzika-gutzika konturatu gabe museoarekiko eta arte garaikidearekiko dauden aurreiritziak apurtzen dira eta jolas estetikoak sortzen duen plazerarekin nahasten dira.

Bestetik, ikastetxeetan arte tailerrak egitearen garrantzia aipatu behar da. Hezkuntza guztian metodo ludikoen bidez, emaitza hobekak direla esaten da. Tailerrak proposatzerakoan hezitzaileek museoetan ematen direnak eredutzat hartu ditzakete. Argi eta garbi dago, geletan tailerrak egiten badira museoetakoak baino askoz hobekak izan daitezkeela. Arrazoa argia da, hezitzaile edo irakasle hauek ikasleak hobe ezagutzen dituzte, ikasturte osoan zehar programatu dezakete (behar duten denbora guztia hartzeko aukerarekin) eta tailerrak momentuan sortzen diren beharren arabera antolatu ditzakete. Beraz, ez dago zalantzarik, geletan arte tailerrak proposatzeak dituen onurak sekulakoak direla. Dena den, irakaslea edo hezitzailearen paperak duen garrantzia ikusita eta arlo honekiko duten ezjakintasun orokorra dela eta ahalegin handia egin beharko dute tailer edota proiektu egoki bat gauzatu ahal izateko. (Gutiérrez Párraga, 2008)

Geletan gauzatuko diren tailer hauek proiektuen bidezko metodologian oinarrituta egon beharko dira, artea hezkuntzan lantzeko modurik egokiena suposatzen baitute. Metodologia honen inguruan hurrengo puntuan hitz egiten dut.

² Teresa Gutierrezek *La necesidad pedagógica del arte contemporáneo* testuan Julián Soriano (1998) *Los Talleres didácticos del IVAM* zititzen du.

1.3 Arte lokala lantzearen justifikazioa

1.3. 1 Proiektuen bidezko metodologia

Hezkuntzan orokorrean gertuko gauzekin lan egiten denean ikasleen interesa handiagoa izaten da eta emaitza hobeak direla ikusten da. Hezkuntza artistikoan ez ezik, hezkuntzako arlo guztietan lan proiektua lan egitearen onurak ikusgarriak dira. Metodologia honen bidez, normalean gertuko gai hurbil batetik abiatzen da proiektua, ikasleek gustuko duten edo bizi izan duten zerbaitetik.

Ikasleak euren aurrezagutzetatik ezagutza orokor eta aberats batera pasako dira. Ikasleen motibazioa askoz handiagoa da horrela lan egiten denean eta ikaskuntza prozesuaren protagonistak edo subjektu aktiboak direla esan dezakegu. Arterari dagokionez, proiektua lan egitea oso esanguratsua da, horrela kritikotasuna, talde lana eta abar sustatzen dira. Gainera, diziplinartekotasuna lantzeko aukera ezin hobe da, proiektu bakar batekin zenbait arlo jorratu ditzakegulako. Ez hori bakarrik, ikastetxe osoak ere proiektu berdina landu dezake, hori oso interesgarria dela esan beharra dago.

Curriculum orokorra jarraituz gero, gehien erabiltzen dena testuliburuak dira, eta askotan horretara bakarrik mugatzen dira hainbat irakasle. Proiektuen bidez organizatua dagoen curriculumarekin aldiz, ezagutza irakasle zein ikasleek hautatutako arazo edota gai komunekin eraikitzen da. Ikerketa lanak proposatzen dira, ezagutza irekia eta esanguratsua lortzea bermatuko dutenak.

Proiektuen bidez curriculumak dituen mugak gainditu egiten dira. Hautatutako gaiak ikasleentzat motibagarriak eta egokituak izaten dira eta ekintza praktikoek pisu handia izaten dute. Ez da ahaztu behar praktikaz gain, ikerketak duen garrantzia eta horretarako informazioa biltzeko metodoak ikasten dira. Guzti hau gauzatzeko, taldekatze ezberdinak erabiltzen dira ekintzaren arabera, bakarka, talde txikitik eta talde handian. (Morejón Corredera)

Proiektuen bidezko metodologiarekin loturik ebaluazioari buruz hitz egin beharra dago. Ebaluazioak beldurra ematen du hezkuntzan, baina ez luke horrela izan behar.

Ebaluazio mota ezberdinak daude eta beti erabiltzen den metodologiarekin estuki loturik doa. Jakin badakigu ebaluazioa formatiboa izan behar duela, bai ikasle zein irakasleentzat. Landutakoa benetan ongi landu den egiaztatzeko balio behar du, ez askotan egiten den bezala azken emaitza soilik aipatzeko. Hori de la medio, ebaluazioak prozesu guztia kontuan hartu behar duela azpimarratu behar da, ez soilik azkeneko emaitzak baina tamalez ez da horrela izaten. Askotan denbora falta aitzakiatzat hartzen da, baina hori ez da horrela. Ebaluazioa beharrezkoa da haurren garapena ikusi ahal izateko, beraz ikasleentzat ulergarria izan behar da eta beraiekin hitz egin behar da eta euren sentimenduak eta esperientziak kontuan izan behar dira.

Lan proiektuetan erabiltzen den auto-ebaluazioa goraipatu behar da, bertan ikasleek izandako prozesuan zehar nola sentitu diren, izandako zailtasunak eta abar islatzeko aukera ematen zaileko. Horrez gain, talde osoarekin asanbladan hitz egitea ere onuragarria dela esan beharra dago.

Beraz, proiektuen bidezko metodologiarekin esan dugun bezala gertuko gauzeekin parte hartzea eta motibazioa handiagoa denez, arte lokalarekin berdina lortuko dugula esan beharra dago.

Oso ohikoa da arte hezkuntzan artista ezagunekin lan egitea, baina gehienetan oso famatuak eta hilda dauden horiekin egiten da. Gure zonaldeko artistak alde batera uzten ditugu eta oso ezagunak diren artisten obrak lantzeko joera izaten dugu. Argi eta garbi dago askoz aberasgarriagoa dela artista garaikideak eta ezagunekin lan egitea, horrek dakarren abantaila guztiekin. Lokalak izanda ikasleentzat ezagunak izan daitezke, artelanak gertukoak izan daitezke eta garaikideak direnez, bizirik badaude eskolara etortzeko aukera egon daiteke. Hauxe bera Imanol Agirrerren (2009) hitzek esaten digute:

“... Joan Miró o Paul Klee suelen ser los más recurrentes, pero no faltan a su lado obras de Kandinsky, Matisse o Mondrian. Todos ellos son artistas de primera línea, cuya calidad está debidamente sancionada por el mercado y la crítica artística, pero resulta llamativo que mientras en niveles superiores de estudio del arte todavía hoy cueste muchas veces pasar del impresionismo, en la escuela

infantil sean estos artistas de las vanguardias del siglo XX los que tienen más presencia. A mi entender esto se debe a la ya citada cualificación canónica, pero también a una concepción simplista de la infancia que lleva a considerar que los trabajos de estos artistas, con formas y colores básicos, resultan ser los más adecuados para la etapa infantil.”

1.3.2 Ondarea eta artea

Proiektuen bidezko metodologian defendatzen den bezala, gauzak gertukotasunetik planteatzen direnean emaitza hobeak izaten dira. Beraz, ondarearekin metodologia berdina erabiltzea defendatu beharra dago, haurren gertuko gauzetatik lan egin behar da orokorrera pasa ahal izateko. Ondare indibidualetik hasi beharko da ikaskuntza, hau da norbanakoaren ondaretik. Behin hori ulertuta, gertuko ondarera pasako gara, herriko ondarea gurea bezala ulertzera eta errespetatzera. Ondarea soilik materiala ez dela barneratu beharko da. Ondarean materialaz gain oroimena kontuan hartu behar dela esaten du Olaia Fontalek (2008):

“Hay que señalar que lo material es solo la parte visible, tangible, de los ingredientes patrimoniales, pero que hay otros componentes inmateriales tano o más importantes. Pensemos, para entender esto, en lo que puede suponer perder alguno de los objetos guardados en ese cajón de recuerdos materiales que muchos atesoramos: una postal, una entrada a un concierto, una servilleta usada el día que conocimos a nuestra pareja... Desde luego, perder todo eso lleva consigo perder el vestigio material de un hecho, situación o persona, pero aún nos queda el recuerdo de lo que sucedió. Sin embargo, si perdemos nuestra memoria (algo que han experimentado algunas personas por un accidente o enfermedad), perdemos los recuerdos, perdemos nuestra identidad: no sabemos quienes somos, ni cual fue nuestra historia, ni que nos gusta hacer o con quien nos gusta estar. A partir de estos ejemplos, podemos reconocer como nuestro patrimonio inmaterial tiene un grandísimo valor, quizá no mayor que el patrimonio material, pero en todo caso un valor clave. Por extensión, la dimensión inmaterial de lo patrimonial es, como poco, fundamental. Así pues, lo patrimonial no es solo historia, monumentos y bienes materiales...”

Ondarearen arte hezkuntzari buruz hitz egingo dut. Hezkuntza artistikoa, hezkuntza kulturaltzat ulertzen badugu, ondarea txertatu daiteke.

Ondareak nortasuna garatzen laguntzen du eta edozein ikaskuntzarako premiazkoa da honen trebetasuna. Bitartean eragilearen (2007) hitzetan, “ondarea, gure ustez,

nortasunak eratu eta finkatzen laguntzen duen zerbait da eta hortaz, ondarea hezkuntzaren helburua eraikitze prozesuetan esku hartzea izanen da.”

Ondarearen arte hezkuntzaren eginbehar orokorra ondare artistikoak eraikitzea da artearen ikaskuntzatik abiatuz. Ondarea hezkuntzatik begiratzen dugunean, ondare pertsonala eta kolektiboaren inguruan hitz egin behar dela esan behar da; hau da, ikaslea abiapuntua izango da. Ondarea gurea dela sentitu behar da eta horretarako ondarearekiko sentsibilizatu behar gara, gure identitate bihurtu ahal izateko.

Artea sortzarekin soilik ondarea eraikitzea lortzen da, baina ondarearen irakaskuntzarekin haratago joango ginateke. Esaterako, ondarearen balore batzuk bereganatuko genituzke ondasunak, propietate sinbolikoa, enpatia, errespetua, solidaritatea eta abar.

Puntu honetara iritsita interesgarria da arte hezkuntza ondarearen kontzeptutik ordenatzen duen ikuspuntua planteatzea. Horrela, artearen ikaskuntzarekin identitateak sortzea eta inguruko ondarearekiko konpromisoa eta inplikazioa bermatuko da.

Ondarera orientatua dagoen arte hezkuntzak honako irizpideak ditu:

1. Norberaren eta gizartearen xede eraikitzailea: ondare pertsonala eta kolektiboa eratzea.
2. Ikusmen pragmatikoa: inguruko ondarearekiko sentsibilizazioa ematea.
3. Testuinguru sorkundea: gertuko inguruari hurbilpena.
4. testuinguru ideari erreferentzia: esperientzia artistikoaren kontzeptua norbanakoaren esperientziatik abiatuz hastea eta kontzeptu kolektiboetara iristea.
5. Artistikoaren ikuspen indibiduala: ondare pertsonal eta kolektiboen eraikitzea; barrutik kanpora.
6. Arte irakaskuntzaren orden postmodernoa
7. Izate artistikoaren txertatzea izate kulturalen: obrak bere testuinguru kulturalaren barruan ulertzea.

8. kontzeptu garaikideen inklusioa kultura-aniztasunerako: ondarearen dimentsioarekin bat eginez. (Fontal Merillas, 2008)

Arte hezkuntza kultura artistikora hurbiltzearen gakoa honakoa da: gelan ematen den hezkuntzaz gain, inguruan ditugun eszenarioak (museoak, herriko txokoak, komunikabide baliabideak eta abar) ondare artistikoaren ikaskuntza-irakaskuntzarako ezinbestekoak direla ulertzea. Guzti hauek behar bezala bateratzeko, testuinguruak duen garrantzia kontuan izan behar da ondare artistiko kulturalaren ikaskuntzan. Ikasten eta irakasten den artea testuinguru egokian egon beharko da beti.

Jarraian ondarearen arte hezkuntzari dagokionez kontuan hartu behar diren hiru ardatz aipu egingo ditut:

Lehenik, hezkuntza orokorrean kontuan hartu behar diren gauzak esan behar ditut. Hezkuntza orokorraren barruan arte hezkuntza eta ondare hezkuntza aurkitu ditzakegu. Hezkuntza orokorrak gizarte dimentsio eta dimentsio sinbolikoaren arteko lotura ahalbidetuko digu. Pedagogia orokorraren ikaskuntzak eta irakaskuntza prozesuak, ebaluazioa, identitatearen eraikuntza eta abar ahalbidetuko dizkigu.

Bigarrenik, arte hezkuntza ondare artistikoaren hezkuntzaren nukleoa izango da. Hezkuntza artistikoaren teoria orokorrak, teoria erreferentzialak, helburuak, metodologia, curriculum eta irakasle eta ikaslearen kontzepzioak kontuan izango dira.

Azkenik, ondarearen hezkuntza dugu. Honek aurreko bietan aipatutakoa barnebiltzen du. Baina, ondarearen hezkuntza artearen hezkuntzako erreferentzia izango da. Identitatea eraikiko da, ondasunaren kontzeptua, testuinguru batzuen karakterizazioa, inguruarekiko inplikazioa eta abar.

“Con todo, tenemos una genealogía para una educación patrimonial, que gira en torno a la educación cultural y que incorpora disciplinas y contenidos muy diversos. El puente entre estas dos áreas lo constituirían los contenidos propios de la educación artística. El fondo común estaría conformado por un sistema de relaciones que une las miradas hacia las artes visuales con todas las demás

miradas. Un fondo de red que nos conduce, directamente, a la educación artística patrimonial. “ (Fontal Merillas, 2008)

Ondarearen arte hezkuntzarekin gainontzeko diziplina guztiak jorratuko dira. Ezin da ahaztu honen bidez arte lanak, artistak, korrante ezberdinak, teknika anitzak eta abar lantzeko aukera ezin hobea aurkezten dela. Ikaskuntza honen bidez eduki kontzeptualak, jarrerazkoak eta prozedurazkoak lantzen dira.

Horrez gain, esan beharra dago ondare artistikoak ez duela soilik dimentsio bisualarekin zerikusirik. Arte garaikidearekin, bisualetik sentsorialera pasatu da, dimentsio bisualak jarraitzen duen pisua izanda ere. Lehen esan dudan bezala, egun, arte garaikideak bost zentzumenak lantzen ditu eta hau hezkuntza artistikoan kontuan izan beharko da beti.

Bukatzeko, ondare artistikoaren hezkuntzari ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuan dagozkion bi dimentsio azaldu behar ditut. Ondarea baloratzeko estrategia eta ezagutzak. Ondarearen arte hezkuntza didaktika espezifikotzat hartzen da, zeinak oinarri teoriko eta metodologiko propioa duen. Hortaz, ondorioztatu daiteke, didaktika orokorraren diziplina bat dela, beste didaktika espezifikoekin alderatuz gauza komunak dituen: ikaskuntza prozesuez arduratzen da, ikasten dauden subjektuak kontuan izaten ditu, testuinguruak kontuan izaten ditu, irakasteko eta ikasteko dauden modu anitzak aztertzen ditu. (Fontal Merillas, 2008)

- Ondarearen museoa

Ondareaz hitz egiten nagoela, museoek ondarearen transmisioan daukaten paper nagusia aipatu nahi dut. Arte garaikideari buruz hitz egin dudanean, arte hezkuntzan museoek duten garrantzia aipatu dut. Orain, berriz, ondarea eta museoaren ideiak dakartzaten onurak esan behar ditut.

Arte garaikidearen museoetan ohikoa izaten da, ekintza hezitzaileak programatuak izatea, hauen helburuak museoan dauden obren ezagutza helaraztea izaten da, baina ez hori bakarrik, askotan museoan ikaskuntza irakaskuntza edukiek obrak gainditzen dituzte eta gaur egungo artearekin elkarreraginen dauden gaiak lantzen dituzte. Gaiak honakoak izaten dira: testuinguru garaikidea, artistak eta euren ardurak, artearen

berezko sistema eta abar. Era honetan, museoek ondare potentziala dutela esan beharra dago, hezkuntzaren bidez museoak ondarean bilakatzen dira ikusleentzat. (Fontal Merillas, 2006)

Askotan museoetatik ateratzen den jende asko sentsazio txarrarekin ateratzen da, ezer ulertuaren sentipenarekin edota indignatuak. Pertsona hauentzat museoek ez dute ondarerik, soilik ondasunak dituzte, eta zenbait kasuetan ez dira ezta ondasun hauek ulertzen. Egoera hauek bizitzen dituzten pertsonak ez dute baloratzen ezta errespetatzen museotan aurki daitekeena. Gerta ala gerta ez, pentsa dezagun museo horietatik ateratzen diren ikusleak ukituak izaten direla ikusitako zerbaitengatik, pertsona horiek artista bezala pentsatzen dutela konturatu direlako eta ikusitako obrekin emozioak piztu edo hausnartzea lortu dutelako. Sentsazio horrekin ateratzen badira museo horrek pentsarazten jarri ditu eta erakusgai diren obrak ondare bihurtzea lortu du. Hau gertatzen bada, ondarearen museo batean pentsatu dezakegu. Hortaz, museo hezitzaile eta sozializatzaile batera gerturatzen gara, zeinak ondarearen ondasungile, ondarea, identitate kultural eta kultura eraikitzen duen. Museoen ideia hau azpimarratzeko, Olaia Fontalen (2006) hitz batzuk aipagarriak dira oso:

“Hablamos de museos que son que son espejo de una realidad social, porosos a lo que sucede actualmente en el mundo, sensibles a los cambios culturales. Museos que entienden que si contienen patrimonio, éste no puede ser entendido como tal si no existe un público que se sienta identificado con él, que desarrolle un sentimiento de propiedad simbólica y de pertenencia a un grupo a través del mismo.”

2. ARTISTEN PROIEKTU DIDAKTIKOEN INFORMAZIO BILKETA

Proiektu honetan Altsasuko bi artista garaikide hautatu ditut, Txuspo Poyo eta Dora Salazar. Atal honetan lehenik eta behin, bi artista hauen biografia eta obra laburki aipatuko ditut. Jarraian beraien inguruan egin diren arte proiektuen informazio bilketa egin dut.

2.1 Dora Salazar

2.1.1 Biografia

Dora Salazar 1963 urtean Altsan jaio zen nafar artista plastikoa da. 1981-1986 urteetan egin zituen ikasketak EHUko Arte Ederren Fakultatean, eta 1986tik 1989ra Eskulturako doktoregoa egin zuen.

Sari ugari eskuratu ditu, eskulturari emandako Gure Artea 1990ean, Luxenburgoko Gazteriaren Ministerioaren Saria 1995ean, Zarauzko Itsas Pasealekua eskulturaz hornitzeko deitu zen lehiaketa 1997an.

Bilbon bizi arren, Altsan du estudioa, eta bertan lan egiten du batzuetan. Eskulturgintzan dihardu gehienbat, baina artegintzaren beste esparru batzuk ere jorratzen ditu, besteak beste, pintura, liburu- eta ilustrazioak, antzezlanetarako eszenografiak eta abar.

Bere obran, beste gai askoren artean, pisu berezia dute gaur egungo gizartean femeninoaren kondizio, funtzio eta zeinuek. Bestetik, bere identitate propioa definitzen eta espresatzen du bere arte lanen bidez. Bere obra hobetu ulertzeko hona hemen zenbait obraren esanahiaren hitz batzuk:

“En las piezas que se refieren a la identidad propia, se expresa e impone, vigente, aquella ambigüedad insuperable para definir -para autodefinirse- apuntada por Barthes, cuando se interroga sobre qué preciso cuerpo trata un artista, ya que “nosotros tenemos muchos cuerpos”. Así, en la escultura de Dora Salazar, la espalda de un torso suyo y la palma de su mano se recubren en ocasiones de una capa de piel curtida, o la estructura de su pie se funde con la misma

configuración del zapato que calza. Esa angustia amarga de la dificultad del autoconocimiento se relaja en el otro conjunto de trabajos, en las piezas del discurso sobre lo femenino, en las que la artista puede producirse en libertad y con seguridad de juicio, contra el consumismo (Vestido de novia-traje de luces), contra la manipulación sexista (Corpiño) o contra la asunción de roles y emblemas (Trenza).” (Marín Medina, 2001)

2000. urtean, Euskadiko Kutzaren eta Donostiako Artco galeriaren eskutik, Recorridos izeneko liburua eman zuen argitara. Lan horretan, Dora Salazarrek egindako 51 marrazkiren eta Bernardo Atxagaren testuen bidez, Donostiari buruzko hausnarketa egin zuten.

Erakusketa anitzetan ez ezik, Dora Salazarren obra Nafarroako eta Arabako Arte Ederretako Museoetan, Bizkaiko Batzar Nagusietan, Zarauzko Itsas Pasealekuan Serie Estructura Forma lan saritua eta Donostiako Koldo Mitxelena Kultur gunean egon izan da ikusgai, besteak beste. (Wikipedia)



2.1.2 Artea eta hezkuntzaren inguruan egindako lanaren informazio bilketa

- ***Nafarroako museoa***

Nafarroko Museoko hezkuntza eta didaktika saileko teknikariak jakinarazi didan bezala, 2002 urtean Manuel Riveraren erakusketarekin Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergo eta Lanbide Heziketako ikasleentzat hainbat tailer antolatu ziren Nafarroako Museoan. Garai haietan, Dora Salazar eskultoreak Riveraren

antzeko materialekin lan egiten zuen (oihal metalikoa eta alanbrea gehienbat), hori dela medio, bera izan zen tailer horiek aurrera eraman zituena.

Tailer hauetan Riveraren obra aztertzearekin hasten ziren eta ondoren ikasleak praktikara pasatzen ziren, prozesu sortzaile batera . Adin tarte bakoitzarekin tailer ezberdinak egin zituen ikasleen beharren arabera. Talde bakoitzari artistaren obraren azalpen laburra egitearekin batera eskultura garaikidearen oinarrizko kontzeptu batzuk aipatzen zizkien. Horrez gain, sormen prozesua nola ematen den argibideak ematen zizkien, ideiatik abiatuz, zirriborroetara pasatuz azkeneko obraren exekuziora iritsi arte.

Azalpen teorikoak eman eta gero, gai bat proposatzen zien (adinaren arabera zehaztutakoa): giza gorputza, animaliak, zirkua, paisai bat eta abar. Gaia hautatu eta gero, ikasleak zirriborroak egiten hasten ziren euren ideia garatuz. Amaitzeko eskultura eraikitzen pasatzen ziren, alanbrezko hezurdura egin eta oihal metalikoarekin hornituz bukatzen zuten sortze lana.

- ***Iñigo Aritza Ikastola (Altsasu)***

2012 urtean Iñigo Aritza Ikastolak arte proiektu bat antolatu zuen Altsasuko Dora Salazar artistaren obran oinarrituz. Euren helburua zonaldeko artisten obrak ezagutzea izan zen.

Proiektuaren izena “Artistak gelan” da, horrekin ikasleen artista gaitasuna goraipatu nahi izan zuten. Derrigorrezko Bigaren Hezkuntzako bigarren mailan gauzatu zen. Gela horretako tutoreak, teknologia irakasleak, plastika irakasleak, teknologia berrien irakasleak eta ingeleseko irakasleak parte hartu zuten. Ikasleei dagokionez, talde horretako 26 neska mutil partaideak izan ziren.

2012ko urtarrila eta apirila bitartean gauzatu zen. Urtarrilean ikastolako irakasleak arlo honetako profesional batzuekin bildu ziren proiektua diseinatzeko, Lizarra Ikastolako zuzendaria den José Reparaz eta Dora Salazar artistarekin. Otsaila eta martxoa bitartean ikasleek aurrera atera zuten sortze prozesua. Bukatzeko, apirilean Iortia Kultur Gunen erakusketa antolatu zen.

Helburu orokorrak honakoak izan ziren:


1. Ikusten jakitea ulertzeko eta egiten jakitea adierazi ahal izateko.
2. Sormenarekin adieraztea lengoi plastikoa eta bisualaren tresnen bidez.
3. Lengoi plastikoa erabiltzea emozio, sentimenduak eta bizipenak adierazteko.
4. Teknika plastikoak, bisualak eta teknologia berriak erabiltzea sortze lanetan aplikatzeko.
5. Planifikatzea eta hausnartzea banaka zein taldeka sortze prozesuari buruz.
6. Beste pertsonekin erlazionatzea talde lanaren bidez.

Erabilitako materialak anitzak izan ziren. Alde batetik material plastikoak: papera, margoak, kola, egurra, kartoiak, haria, artilea, alanbrea eta abar. Tresnei dagokionez, alikateak, guraizeak, kuterra, eta abar erabili zituzten.

Talde txikitan banatu zen ikasgela eta talde bakoitzak proiektu bat aurrera atera zuen Dora Salazarren obran oinarrituz. Material ezberdinak erabili zituzten eta emaitzak oso anitzak izan ziren.



“Askatasunerako atea”



“Ezin hegan, preso”



“Ezin hegan”



“Munduko kontraesanak”



“Pentsamendu askeak”



“Zertarako hegalak gorputzik gabe”



“Tximeletak haiek hegan”



“Mundua nolakoa ote”

Talde bakoitzak eguneroko bat idatzi zuen sortze prozesu guztian zehar, bertan hasierako ideiak, zirriborroak, materialen zerrandak eta abar ikus ditezke. (Ikusi 1.eranskina) Horrez gain, informazio guztia ere blog batean jaso zuten. Bertan, proiektu osoan zehar ikasleek egindako sortze lanen zenbait bideo ikusgai daude. ³

Proiektuaren ebaluazioari dagokionez, proiektuen bidezko metodologia oso ongi baloratua izan zen irakasle eta ikasleen aldetik. Ikasleek izan zuten partaidetza eta motibazioa aparta izan zela baloratu zuten irakasleek eta ikasleek berdina esan zuten, taldeka oso ongi aritu zirela.

Proiektu honen arrakasta dela eta bi urtean behin horrelako proiektu bat martxan jartzea erabaki zuten. Zonaldeko artisten laguntza ikusita beste hainbatekin horrelako proiektuak egiteko intentzinoa dute: Txuspo Poyo, Jose Ramón Anda, Dora Salazar eta abar.

³ Informazio gehiago izateko, hona hemen blogaren helbidea:
<http://arteproiektudbh2inigoaritz.blogspot.com.es>

2.2 Txuspo Poyo

2.2.1 Biografia

Altsasun (Nafarroa) jaio zen 1963an. Bilbon eta New Yorken bizi da eta bietan egiten du lan. Txuspo Poyo ikuslearen irudimenari iragarri eta hura pizteko trebetasun handia duen artista diziplinartekoa da. Horrela bada, edozein bitarteko erabiltzen du estetika poetikoaren maila jakin batera iristeko: 16 mm-ko filmak, bideoak, zeluloideak, argazki-hitzak edota irudi landuak. Artista honen lanetan behin eta berriz ageri dira XX. mendeko zinemaren erreferentziak eta animazio birtuala.

Hitz gutxitan, esan nezake Txuspo Poyoren lana berak bere buruari ezarritako muga-sistema bat asmatzera bideratzen dela, eta honen aukera estetikoak aztertzeraz. Bere lana, forma guztietan, istorioei buruzko informazioa kentzean edo ematean oinarritzen da. Gertakizunak nola eta noiz irakurle edo ikuslearekin partekatu erabakitzen du, iragarpena, misterioa, suspensea edo sorpresa sortzeko. Zentzu honetan, Txuspo Poyoren obra guztiek ezaugarri ludikoak dituzte. Bere lana, murrizketen jokia edo informazio asimetrikoaren jokia azpimarratzen duenez gero, joko mota bat dela esan daiteke. (Poyo)



2.2.2 Artea eta hezkuntzaren inguruan egindako lanaren informazio bilketa

- ***Iortia Kultur Gunea (Altsasu)***

2008 urtean Altsasuko Udalak eskultura enkargatu zion Txuspo Poyori. Prozesu guzti hori aprobetxatuz, Altsasuko Kultur Teknikariak proiektu bat martxan jarri zuen “Casa arbol” eskultura azaltzeko. Proiektua aurrera ateratzeko teknikaria Bitartean eragilearekin kontaktuan jarri zen.



“Casa arbol” edo “Zuhaitz etxea” . Txuspo Poyo


Alde batetik, etxolaren panel interpretatu bat egin zuten. Honen helburua, ikusleen ulermena handitzea izan zen. Hona hemen panelaren argazki bat:



Antolatatu zen beste gauza bat, eskultura sortzeko prozesu guztia azaltzen zuen erakusketa bat izan zen. Bertan, maketak, argazkiak, planoak jartzeaz gain, espresuki lortia Kultur Guneak Txuspo Poyori enkargatu zion bideo proiektatu zen. Horrez gain, bisita gidatu bat ere antolatu zuten artistarekin.

Bideo honetan zuhaitz etxearen planoak hiru dimentsioatean eta mugimenduan agertzen dira. Leku guztietako ikuspuntuetatik Zuhaitz Etxea erakusten du, gotitik, behetik, barrutik kanpotik eta abar.

Hona hemen bideo honetatik ateratako zenbait irudi:



Ondoren, Bitartean eragilearekin tailer ezberdinak antolatu ziren. Tailer hauen helburua Txuspo Poyoren eskulturaren interpretazioa egitea izan zen. Tailer ezberdinak egin ziren, euskaraz eta gaztelaniaz eta hauetan, Udal Ludotekako haurrek, Gaztetxokoko gazteek, familiek eta pertsona helduek parte hartu zuten. Tailer bakoitza partaideen adin eta beharretara planteatuak izan ziren.

Hona hemen tailer horietariko argazki batzuk:





Tailer horretatik ere zenbait gazteek bideo bat sortu zuten “La tenebrosa casa arbol”. Telefono mugikorrek in grabatutako laburmetraia da eta bertan, beldurrezko istorio laburra kontatzen dute. 2008 urtean telefono mugikorren bideo kalitatea ez zen gaur egungoa bezain ona, hortaz idei ausarta eta berritzailea izan zen.⁴

Hona hemen helbidea eta bideotik ateratako irudi batzuk:



⁴ Bideo ikusteko helbidea: <http://www.youtube.com/watch?v=uZ6Mll8mxSc>

Bukatzeko, kultur teknikariak esan zidan bezala, herriko ikastetxeekin lan egiten saiatu ziren, baina oso zaila dela esan zidan. Urtero arte garaikideko programa bat egiten dute Iortia Kultur Gunean, gida didaktikoekin, tailer ezberdinak antolatuz eta abar.

3. ERREKURTSO DIDAKTIKOAK

Arte lokala eta garaikidea proiektuen bidez lantzeko, bi errekurtsu didaktiko sorta proposatu egin ditut. Proposamen bat Dora Salazarren obra lantzeko da eta bestea Txuspo Poyorena. Bietan eskema bera erabiltzeaz gain, testuinguru berean kokaturik daude, Altsasuko Zelandi Eskola Publikoan. Eskola praktikak 3 ikastetxe honetan egin nituen eta arte hezkuntzan inoiz ez dutenez horrelako proiekturik aurrera atera, interesgarria izango litzatekeela uste dut. Ikasleek bere herriko artisten obrak ezagutu eta horietan oinarritutako proiektu artistiko bat gauzatzea oso garrantzitsua izango litzateke eskola honetan ematen duten arte hezkuntzari ziztada handi bat emateko. Dena dela, horrek ez du esan nahi errekurtsu hauek soilik eskola honetako testuingururako baliagarriak direnik. Proposamen guztian baliatuko diren materialak ere espazio geografiko horretara egokituta daude, Altsasura. Hori dela eta, Altsasuko beste ikastetxeetan (Iñigo Aritza Ikastola eta Jesusen Bihotza Ikastetxea) gauzatu ahal den proposamen irekia dela esan beharra dago.

Aipatu, proposamen hauen bidez, ikasleak arte lanak ulertzeko, interpretatzeko eta hortik abiatuz sortze lanak egiteko metodologia batean murgildu nahi ditudala. Arte ikuspuntu batetik pentsatzen jarri nahi ditut, haiei zuzenean arte garaikidearen azalpen huts bat eman ordez, arte lokalaren ikuspuntutik haiek izan daitezten proiektu hauen partaide eta subjektu aktiboak.

Denboralizazioari dagokionez, esan, errekurtsu didaktiko hauen proposamen honetan ez dela denborarik zehaztu. Proposamen ireki bat den heinean, ikasleak eta irakaslea ez ditugunez ezagutzen ezinezkoa da denbora zehaztea.

Proiektu hau aurrera aterako lukeen irakasleak zehaztu beharko lituzke ordu kopuruak eta zein saio eta zein ez erabili hautatu, betiere ikasle bakoitzaren erritmoak eta beharrak kontuan hartuz eta beharrezkoak diren moldaketa guztiak eginez. Horrez gain, proposatzen diren helburuak eta edukiak ere orokorrak eta zabalak dira, beraz irakasleak ere hauek bere nahien arabera moldatu beharko lituzke. Guzti hau ezinbestekoa da proiektu honen errentagarritasuna bermatu ahal izateko.

3.1 Dora Salazarren obra lantzeko errekurtsio didaktikoak

3.1.1 Sarrera

Errekurtsio didaktikoen proposamen honekin, ikasleak Dora Salazar artista altsasuarraren obran murgildu nahi izan ditut. Gauza jakina da arte hezkuntzan gutxitan ematen direla horrelako proiektuak. Hutsune hau ikusita, eta arte lokala eta garaikideak ikasleekiko izan dezakeen hurbiltasuna probestuz, guztiz interesgarria suertatu daitekeela esan behar da. Artista honen obran oinarrituz, herriko arte lokalari buruz hausnarketa sustatuko da eta gertutasun horretatik, artea interpretatzen eta errespetatzen ikasiko dute.

Proposamen hau Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan praktikan jartzeko sortua izan da, bosgarren mailan hain zuzen ere, 10-11 urteko haurrei zuzendua.

Esan, errekurtsio sorta honen bidez, ikasleak arte lanak ulertzeko, interpretatzeko eta errespetatzeko metodologia batean murgildu nahi ditudala. Prozesu honetan ikasleak beti subjektu aktiboak izango dira. Artista honen obra ezagutzeko artearen bidez sentimenduak eta baloreak transmititu daitezkeenaren ideia barneratuko dute ikasleak. Hortik abiatuz, euren sentimenduak adierazteko sortze lan prozesu batean murgilduko dira eta euren gorputza adieraziko dute. Garrantzi handia emango zaio sentimenduak, jarrerak eta baloreak transmititzeari.

3.1.2 Gaiaren hautaketa

Proiektu honen bidez, Dora Salazar artista emakume lokala eta garaikidearen obra ezagutu nahi da. Alde batetik, emakumea bezala goraiatzeko eta bestetik artista lokala eta garaikidearen obra ezagutu eta baloratzeko. Bi printzipio hauetatik abiatuz, Dora Salazarrek proposatzen dituen baloreen inguruan hausnartzea lortu nahi da. Artista honek bere obra ezberdinen bidez unibertso femeninoa plasmatu nahi izaten du. Artistak eskulturaz gain beste artelanak egiten dituen arren, proposamen honetan eskulturan zentratu naiz. Eskultura gehienetan emakumeen gorputzak adierazten dituen, proiektu honen gaia gorputzak adieraztea izango da.

3.1.3 Metodologia

Proiektuan zehar erabiliko dudan metodologiak paper garrantzitsu bat izango duenez proiektua garatzerakoan, ezinbestekoa da bere oinarri nagusiak azaltzea. Marko teorikoan aipatutako proiektuen bidezko metodologiak dituen zenbait irizpidean oinarritu naiz. Lehenik eta behin, aipatu ikasleak artista honen obra ezagutzera hurbildu eta hortik abiatuz eurek sortze lan bat egitea lortu nahi dudala, metodologia mota honekin, haiek artean pentsatzen eta originaltasunez sortzen jarri nahi ditut. Honek dakarren guztiarekin, Dora Salazarren obra ezagutu, arte lokala eta garaikideaz hausnartu eta ikasi, sentimenduak adierazi, norbanakoaren identitatea garatu, gorputza adierazi eta abar lortu nahi dira. Ikaslea subjektu aktiboa izango da eta irakaslea proiektua gidatzen duena, ez agintzen duena. Izan ere, jakin badakigu Lehen Hezkuntzako ikasgelan metodologia honek arrakasta izan dezan oso garrantzitsua izango dela irakaslearen papera; irakasleak inork baino hobeto ezagutu beharko ditu landuko diren edukiak, metodologia, materialak eta abar.

Irakasleak ez du klase magistral askorik emango, batzuetan azalpenen bat bai emango du beharrezkoa delako, baina orokorrean gidatuko du. Ikasleek eraikiko dituzte euren ezagutzak eta beraiek izango dira prozesu sortzaile honen protagonistak.

Zehaztu diren helburuak orokorrak dira, izan ere proposamen hau erabat irekia da, praktikara eramango lukeen irakasleak askatasun osoz zehaztuko lituzke helburu espezifikoak. Horrez gain, esan jarduerak ere modu lokabe batean gauzatuko lituzketela.

3.1.4 Helburu orokorrak, oinarrizko konpetentziak eta edukiak

- Helburu orokorrak
 1. Dora Salazar artista lokala eta garaikidearen obra ezagutzea.
 2. Emakume artista baten obra ezagutzea.
 3. Artearen bidez baloreen garrantziaz ohartzea
 4. Sentimenduak eta emozioak modu libre eta sortzaile batean adierazi ahal izatea.
 5. Gorputza modu sortzaile batean adierazteko gai izatea.

6. Norberaren identitatea garatzea.
7. Errespetua, talde lana eta gizarteratzea.
8. Autonomia, norberaren iritzia eta pentsamendua garatzea.

- Oinarrizko gaitasunak

Lehen Hezkuntzako curriculumean zortzi oinarrizko gaitasun daude. Proiektu honekin honako oinarrizko gaitasunak garatuko dira:

1. Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna
2. Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreaginean aritzeko gaitasuna.
3. Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala.
4. Gaitasun soziala eta herritartasuna.
5. Arte eta kultur gaitasuna.
6. Ikasten ikasteko gaitasuna
7. Autonomia eta ekimen pertsonala.

- Edukiak

Proposatutako edukiak:

1. Sentimenduak
2. Baloreak
3. Gorputza
4. Eskultura

Doraren obrarekin joratu daitezkeen edukiak (beste jarduera batzuk egiteko):

1. Identitatea.
2. Eskultura garaikidea.
3. Emakumea.

3.1.5 Jarduerak

Proposatu ditudan jarduera hauek irekiak dira guztiz. Errekurtso moduan edukitzeko dira eta irakasleren batek aurrera aterako balitu bere esku egongo litzateke hauen moldaketa egitea, bere ikasleen behar eta erritmoetara behar bezala egokituz. Hori dela eta ez dute denboralizaziorik ezta helburu espezifikorik zehaztuta. Guzti hau irakasleek zehaztu beharko luke eta horrez gain, taldekatze motak hautatu ere, hau da, talde txikietan, talde handian edota bakarka lan egitea.

- Aurrezagutzak kontuan izateko jarduerak:

Jarduera hauen helburu nagusia ikasleek Dora Salazar artistari buruz dituzten aurrezagutzak ikustea da, gero hauetatik abiatu ahal izateko.

➤ *Jarduera: aurrezagutzak*

Bakarka zein taldeka artistaren inguruko oinarrizko galdera batzuk erantzutea proposatzen da euren aurrezagutzetatik abiatzeko. Ondoren, talde handian erantzunak berrikustea aproposa dela esan beharra dago.

Hona hemen erabili daitezkeen galderak:

DORA SALAZARREN INGURUAN DAKIGUNA

IZEN-

ABIZENAK: _____

A) Bete ezazue honako aurrezagutza fitxan agertzen diren galderak.

Ondoren, talde handian dena komunean jarri eta galderak errebisatuko ditugu.

1. Nor da Dora Salazar?
2. Non bizi da?
3. Zer dakigu berari buruz?
4. Bere obraren inguruan zer dakigu?
5. Zerbait gehiago esateko?

B) Behean ikus dezakezun argazkia ezaguna egiten zaizu? Non aurki dezakegu?



- Informazioa bilatzeko motibagarriak izan daitezkeen jarduerak:

Ariketa hauekin Dora Salazarren biografia laburki eta obra ezagutzeko aukera izango dute ikasleek. Ez dut aholkatzen irakasleak honen azalpenik edo klase magistralik ematea. Proposamen honetan ikasleek eraiki beharko dute euren ikaskuntza. Modu honetan, ikasleak motibatuagoak egonen dira.

Jarraian zenbait ariketen proposamena daude:

- *Jarduera: artista interneten bidez ezagutzen*

Ikasleek euren kabuz informazioa bilatuko dute interneten. Bilaketak egin eta gero beharrezkoak diren apunteak hartuko dituzte.

- *Jarduera: liburutegira informazio bila*

Beste modu bat Altsasuko liburutegira joatea da, bertan orain dela urte askotako egunkarietan agertzen diren berriak gordetzen dituzte. Horrez gain, artistaren obraren zenbait liburu ere aurki ditzakegu.

- *Jarduera: galdeketak eginez ere informazioa eskuratu daiteke*

Informazioa biltzeko azkeneko aukera jendeari galdeketak eginez izan daiteke. Dora Salazar altsasuarra den heinean, erraza izan daiteke edonork oinarrizko galdera batzuk erantzutea. Hori bai, ikasleek jakin behar dute erantzun guztietan jasotako informazio ez dela zertan guztiz fidagarria izan behar.

Ikasleek galdeketetan egingo dituzten galderak idatzi beharko dituzte eta ondoren elkarrizketatuak izango diren pertsonak identifikatu behar dituzte.

- Obra ezagutzeko jarduerak

- *Jarduera: obrara hurbilduz*

Artistaren obra ezberdinen irudien inguruan hausnartuko dute ikasleek. Horretarako, ikasleei obra ezberdinen argazkiak emango zaizkie eta galdera batzuk erantzun beharko dituzte.

Hona hemen erabili daitezkeen argazki batzuk:

ERABIL DAITEZKEEN IRUDIAK



1. IRUDIA



2. IRUDIA



3. IRUDIA



4. IRUDIA

Irudiekin batera lantzeko proposatutako fitxa:

DORA SALAZARREN OBRARA HURBILDUZ

- Irudiari begiratu, taldeka galdera hauek erantzun:

IZEN-ABIZENAK _____

1. Zer adierazten dizue irudiak?

2. Zer sentimendu sorrarazten dizue?

3. Zein titulu jarriko zenioke obra honi?

- Sorkuntzarako jarduerak:

➤ *Jarduera: gorputza adieraziz*

Orain arte ikusitako ezagutzetatik abiatuz ikasleek sortze lan bat egitearen prozesuarekin hasiko dira. Norberak eskultura bat sortuko du. Eskultura hau ez da artistaren obra baten plagio bat izango, eurek originaltasunez sorturiko berri bat baizik. Ikasle bakoitzak bere gorputza adieraziko du modu sortzaile batean

Proposatutako prozedura:

Lehenik eta behin, ikasle bakoitzak ideia zehaztu beharko du, hau da, bere gorputzaren bidez zer adierazi nahi duen. Behin ideia garbi duela, zirriborroak egin beharko ditu. Zirriborroekin batera, zein material behar duen zehaztu beharko du. Azkenik, sortze lana eraikitza pasako da.

Prozesua luzea izango da, ezin baita denbora laburrean egin. Ikasle bakoitzak erritmo ezberdina duenez, behar duen denbora guztia eskaintzeko aukera izango du.

➤ *Jarduera: sentimendu bat adierazteko eskultura*

Gorputza adieraztearen ideiaz gain, sentimendu bat adierazi beharko dute eskultura baten bidez. Eskultura hau ez da artistaren obra baten plagio bat izango, eurek originaltasunez sorturiko bat baizik.

Proposatutako prozedura:

Hasteko ikasle bakoitzak ideia zehaztu beharko du, hau da bere eskulturaren bidez zein sentimendu adierazi nahi duen. Behin ideia garbia duela, zirriborroak egin beharko ditu. Zirriborroekin batera, zein material behar duen zehaztu beharko du. Bukatzeko, sortze lana eraikitza pasako da.

Kasu honetan ere, prozesua luzea izango da, beharrezkoa den denbora guztia eskaintzea komenigarria baita. Ikasle bakoitzaren erritmoak errespetatuko dira.

- Norberaren eskultura azaltzeko jarduerak:

Eskulturetan adierazitakoa besteei kontatzea oso interesgarria da, ikasle bakoitza konturatu dadin artearen bidez gauzak adierazteko gai dela.

➤ *Jarduera: egunerokoa*

Sortze prozesu guztian zehar ikasle bakoitzak egindako guztia eguneroko batean jasotzea proposatzen dut. Baliogarria izan daiteke ikasleak ohar daitezen prozesuan aldaketa anitzak ematen direla.

➤ *Jarduera: eskulturaren azalpena*

Eskultura amaitzean, egunerokoa jasotakoan oinarrituz, ikasle bakoitzak eskulturaren azalpena egingo du. Azalpen hau ikasle bakoitzak talde guztiaren aurrean egitea proposatzen dut.

- Sortze lanak ikusgai jartzeko jarduerak:

Horrelako proiektu bat aurrera atera eta gero aberasgarria izan daiteke eskolako gainontzeko pertsonak honen berri izatea.

➤ *Jarduera: esposaketa ikastetxean*

Eskola guztiak proiektuaren berri izan dezan, eskolako pasabideetan ikasleek esposaketa antolatzea komenigarria dela esan beharra dago. Bakoitzak bere sortze lana nahi duen bezala jar dezake eta beharrezkoak ikusten dituen azalpenak idatziko ditu eskulturaren ondoan jartzeko. Hau norberak prestatuko du. Horrez gain, talde guztiaren artean Dora Salazar artistari buruzko panel informatiboak egingo dira, ikusleek ezagutza minimo bat izan dezaten.

- Autoebaluaziorako jarduerak:

➤ *Jarduera: egunerokoa itxi*

Ikasle bakoitzak bere egunerokoa ixteko auto-ebaluazioa egingo du. Horrela bada, prozesu guztian pertsonalki nola sentitu den, besteekin elkarlanean nola aritu den,

zer ikasi duen, zer hobetuko lukeen eta abarren inguruan hausnartzea komenigarria da.

➤ *Jarduera: taldean asanblada*

Talde handian asanblada baten bidez proiektuaren esperientziari buruz hitz egin daiteke. Talde osoaren esperientzia eta sententzioak ikusteko aukera ezin hobea da honakoa.

3.1.6 Ebaluazioa

Ebaluazioari dagokionez, proiektu honetan ez zaio soilik garrantzia emango azken emaitzei, hau da ikasle bakoitzak sortuko duten eskulturei. Proiektu osoan zehar ematen den prozesuak garrantzia izango du eta hori izango da baloratuko dena.

Ez da azterketa finalik egingo izan ere, ez dut uste, amaierako azterketa baten bitartez ikasleak gai direnik proiektuan zehar bereganatutako ikaskuntza transmititzeko. Honen aurrean, ikasleentzako motibagarria eta askoz aberasgarria izango den metodologia bat zehaztu da, eta prozesu osoan zehar izango dira ebaluatuak. Jarduera bakoitza modu ireki batean proposatuta dagoenez, ez daude helburu zehatz batzuk lortzera bideratuak.

Prozesuan zehar ikasleek izango duten jarrerak garrantzi handia izango du ebaluaketarako, jarrera aktibo eta parte hartzailea izan beharko dute. Bakarka lan egiteaz gain, talde lanak ere pisu handia dauka proiektu honetan, horregatik lankidetzarako aproposak diren jarrerak islatu behar izango dituzte.

Proiektuen bidezko ebaluazioak proposatzen duen bezala, kasu honetan auto-ebaluazioak garrantzia izango du. Bukatzeko, oso garrantzitsua eta ezinbestekoa da talde moduan asanblada baten bidez proiektu guztia baloratzea, ikasleek zer sentitu duten, zer ikasi duten eta abar jakin ahal izateko.

Beste alde batetik aipatzekoa da jarduera bakoitza egiten den heinean, irakasleak ebaluazioa egitea aproposa dela.

3.2 Txuspo Poyoren obra lantzeko errekurtsio didaktikoak

3.2.1 Sarrera

Errekurtsio didaktikoen proposamen honekin, ikasleak Txuspo Poyo artista altsasuarraren obran murgildu nahi izan ditut. Gauza jakina da arte hezkuntzan gutxitan ematen direla horrelako proiektuak. Hutsune hau ikusita, eta arte lokala eta garaikideak ikasleekiko izan dezakeen hurbiltasuna probestuz, guztiz interesgarria dela esan beharra dago.

Errekurtsio sorta hauek, bi adin tartetarako proposatu ditut, alde batetik Lehen Hezkuntzako laugarren mailako ikasleentzat eta bestetik, seigarren mailakoentzat.

Aipatzea, proposamen honen bidez, ikasleak arte lanak eta ondare artistiko kulturala ulertzeko, interpretatzeko eta errespetatzeko metodologia batean murgildu nahi ditudala. Arte eta ondarearen ikuspuntu batetik pentsatzen jarri nahi ditut, norbanakoaren ondarea zer den hausnartu eta ulertzetik, ondare kolektiboa errespetatzera eta gurea bezala ulertzera pasa nahi dut. Gertuko ikaskuntzak duen motibazioan sinesten dut eta artista lokala den heinean eta obra bat Altsasun dagoela probestuz, ondareaz eta arteaz arituko gara.

Altsasun kokaturik dagoen artista honen "casa arbol" obran oinarrituz, herriko ondareari buruz hausnarketa sustatuko da eta gertutasun horretatik, artea interpretatzen eta errespetatzen ikasiko dute. Proiektu honetan ikasleak beti subjektu aktiboak izango dira.

3.2.2 Gaiaren hautaketa

- **Lehen Hezkuntzako laugarren mailarako proposamena (9-10 urte):**

Txuspo Poyok eskulturaz gain beste artelanak egiten dituen arren, proposamen honetan eskulturan zentratu naiz, zehazki Altsasun kokatuta dagoen zuhaitz etxean. Obra honek adin honetako haurrekin babeslekuaren gaia lantzeko.

- **Lehen Hezkuntzako seigarren mailarako proposamena (11-12 urte):**

Proposamen honen bidez, alde batetik ikasleek Txuspo Poyo artista lokala eta garaikidearen obra ezagutzea lortu nahi da. Hemendik abiatuz, Altsasun kokaturik dagoen “casa arbol” obra baliatuz, ikasleak ondare artistikoaz hausnartzen jarri nahi ditut. Gertukotasun horrek sor dezakeen aukera paregabea probestuz, ondare pertsonala eta kolektiboaren ikaskuntza eraikiko da. Ondarea zer den ulertuta eta gurea dela sentitzerakoan, ondarea errespetatzera pasako gara.

Agerikoa da Altsasuko herritar askok ez dituztela ondarearen oinarrizko kontzeptu hauek barneratu. 2008 urtean Zuhaitz etxea Dantzaleku terminoan kokatu zen eta etxearen gaur egungo egoera tamalez, ez da batere ona.

Txuspo Poyok berak proposatu zidan proposamen honen bidez etxola errestauratzeko ideia planteatzea. Hortaz, proposamen honen amaiera ikasle eta ahal diren eragileekin batera etxola hau errestauratzea izango da.

3.2.3 Metodologia

Proposamen honetan zehar erabiliko dudan metodologiak paper garrantzitsu bat izango duenez proiektua garatzerakoan, ezinbestekoa da bere oinarri nagusiak azaltzea. Marko teorikoan aipatutako proiektuen bidezko metodologiak dituen zenbait irizpidean oinarritu naiz. Lehenik eta behin, aipatu ikasleak artista honen obra ezagutzera hurbildu eta hortik abiatuz eurek sortze lan bat egitea lortu nahi dudala, metodologia mota honekin, haiek artean pentsatzen eta originaltasunez sortzen jarri nahi ditut. Honek dakarren guztiarekin, Txuspo Poyo artista altsasuarraren obra ezagutu, arte lokala eta garaikideaz hausnartu eta ikasi, ondare pertsonala eta kolektiboaz pentsatu, ondarearekiko errespetua eta balorazioa garatu, babeslekuaren ideiarene bidez sortze lan bat gauzatu, Zuhaitz Etxea obra errestauratzea eta abar lortu nahi dira.

Ikaslea subjektu aktiboa izango da beti eta irakaslea proiektua gidatzen duena, ez agintzen duena. Izan ere, jakin badakigu Lehen Hezkuntzako ikasgelan metodologia honek arrakasta izan dezan oso garrantzitsua izango dela irakaslearen papera.

Irakasleak ez du klase magistral askorik emango, batzuetan azalpenen bat bai emango du beharrezkoa delako, baina orokorrean gidatuko du. Ikasleek beraien kabuz eraikiko

dituzte euren ezagutzak eta beraiek izango dira ikaskuntza esanguratsu eta prozesu sortzaile honen protagonistak.

Zehaztu diren helburuak orokorrak dira, izan ere proposamen hau erabat irekia da, praktikara eramango lukeen irakasleak askatasun osoz zehaztuko lituzke helburu espezifikoak. Horrez gain, esan jarduerak ere modu aske batean gauzatuko lituzketela.

3.2.4 Helburu orokorrak, oinarrizko gaitasunak eta edukiak

- Helburu orokorrak
 1. Txuspo Poyo artista lokala eta garaikidearen obra ezagutzea.
 2. Pertsonaetik kolektiborainoko ondarearen nozioa transmititzea.
 3. Ondarea kritikoki ulertzea, ezagutzea, baloratzea, errespetatzea, zaintzea eta gozatzea.
 4. Ondare lokala ezagutzea eta errespetatzea.
 5. Babeslekuaren ideia bidez sormen prozesua lantzea.
 6. Zuhaitz etxea errestauratzeko proposamena egitea.
- Oinarrizko gaitasunak

Lehen Hezkuntzako curriculumean zortzi oinarrizko gaitasun daude. Proiektu honekin honako oinarrizko gaitasunak garatuko dira:

1. Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna
3. Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreraginean aritzeko gaitasuna.
4. Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala.
5. Gaitasun soziala eta herritartasuna.
6. Arte eta kultur gaitasuna.
7. Ikasten ikasteko gaitasuna
8. Autonomia eta ekimen pertsonala.

- Edukiak

1. Babeslekua
2. Ondarea.

3. Eskultura.
4. Errestaurazioa.
5. Errespetua.

3.2.5 Jarduerak

Lehen Hezkuntzako laugarren mailan lantzeko jarduerak:

- Aurrezagutza jarduerak:

Jarduera hauen helburu nagusia ikasleek Txuspo Poyo altsasuar artistari buruz dituzten aurrezagutzak ikustea da, proposamen osoa hauetatik abiatu ahal izateko.

➤ *Jarduera: aurrezagutzak*

Jarduera honen helburua artista honekiko hurrek dituzten ezagutzak ikustea den heinean, talde osoari galdera orokor batzuk egitea proposatzen dut. Guztien artean informazioa garatzen joango dira. Irakasleak ez du klase magistralik emango, soilik galderak bota eta erantzunak gidatuko ditu.

➤ *Jarduera: aurrezagutzen fitxa*

Aurreko jardueraren helburu bera du honakoak, ikasleek dituzten aurrezagutzak ikustea, hauetan oinarrituz proposamena aurrera eramateko. Fitxa batean agertzen diren galderak erantzunez egin daiteke. Betiere, komenigarria izango litzateke amaitzerakoan talde handian erantzunak komentatzea.

Erabil daitekeen fitxa baten eredia:

ZER DAKIGU TXUSPO POYO ARTISTARI BURUZ?

Izen-abizena: _____

Erantzun honako galdera hauek. Ondoren, guztien artean komunean jarriko dugu eta erantzunak errebisatuko ditugu.

1. Nor da Txuspo Poyo?

2. Nongoa da?

3. Zer dakigu berari buruz?

4. Zer dakigu bere obraren inguruan?

5. Obraren bat ezagutzen dugu?

6. Irudi honetan ikusgai dagoena ezaguna egiten zaizue?



- Artistaren obra ezagutzeko jarduerak:

➤ *Jarduera: txangoa zuhaitz etxera*

Txango hau ikasteko eta aurreko kontzeptuak behar bezala barneratzeko ezinbesteko tresnatzat planteatzen dut. Proposamena obra honetan oinarritua dago eta obra hau Altsasun dagoenez aukera ezin hobe hau ezin da baztertu.

Ondare gunetara egiten diren ateraldiek obrarekin zuzeneko kontaktuan egoteko aukera ematen dute. Hori dela eta, pertzepzioak eta sentimenduak aberastu, ingurunearekin kontaktua, obra berarekin harremana eta artistarekiko gerturatzea ematen da.

Txangoa burutzeko oso ezberdinak diren bi modu proposatzen ditut:

Lehenengo aukerarekin, ikasleek erabaki eta hautatzen dute zer ikusi edo zer ezagutu nahi duten. Hori dela medio, Zuhaitz Etxea dagoen lekura abiatuko ginateke eta bertan ikasleek behatu dezaten utziko genituzke. Aurretik ikasgelan zer egin nahi duten zehaztu dezakete, aitzitik, momentuan askatasun osoz erabakiko dute zer egin.

Bigarren aukerarekin, irakasleak prestatuko luke irteera. Behaketa bezala planteatuko dezake, hau da, obra eta ingurua ikertzeko helburuarekin. Horretarako irakasleak zenbait ariketa planteatu ditzake. Modu hau arrakastatsua izan daitekeenaren ustean nago, haurrentzat oso positiboa eta motibagarria baita behatzea eta ikerlariarena egitea. Beste aukera bat, bisita gidatu bat egitea da, irakasleak arte hezitzailearen papera egin beharko luke argibideak emanez eta ariketaren bat han bertan planteatuz. Dena dela, aukera hau arriskutsuagoa dela uste dut, alde batetik, irakasleak ez direlako arte hezitzaileak eta bestetik, haurren motibazioa txikiago izan daitekeelako.

Irteera edozein motara eginda ere, ondoren tailer txiki bat planteatzea interesgarria dela uste dut. Adibidez, ikasle bakoitzak Txuspo Poyoren Zuhaitz Etxea berrinterpretatzea izan daiteke. Horretarako aproposa izan daitekeen materiala buztina dela uste. Buztinak aukera ona eskaintzen du forma manipulatzeko eta tenperekin margotzeko. Horrez gain, nahi izanez gero, ateraldian jasotako material naturalak ere sortze lanetan txertatu ditzakete.

- Ondarea lantzeko jarduerak:

Banakakoen ondarea eta herriko ondarea euren esperientzietatik abiatuz jorratzea proposatu nahi dut.

➤ *Jarduera: norberaren ondarea eta ondare kolektiboa, herrikoa*

Gertuko ondaretik, kolektiboaren ondarrera pasaz ondarearen ideia orokorrera hurbilpena egingo dugu. Kasu honetan, gertuko ondarea pertsonala eta familiarra suertatzen zaiena izango da eta ondare kolektiboa herriko ondarea izango da, Altsasukoa hain zuzen ere.

Ondare pertsonala lantzeko honakoa proposatzen dut:

Ikasleak identifikatzen dituzten elementuetan pentsatzeko esango diegu, gauza materialak edo oroimenak izan daitezke. Esaterako, bereziki estimatzen duten jostailu bat euren ondarea izan daiteke. Zailtasunak suertatzen bazaizkie, familiako kideei laguntza eskatu diezaiokete. Zer eskatzen den ulertu ahal izateko irakasleak bere ondare pertsonalean garrantzitsuak diren elementuen berri emango du, esaterako, lagun berezi batekin bizitako kontzertu baten sarrera, egindako bidai aipagarri baten oroigarri bat eta abar.

Hurrengo saiorako, klasera ekarri beharko dituzte elementu horiek (materialak badira eta eskuragarri badituzte noski, bestela aipatzearekin soilik balio du).

Ondare kolektiboa lantzeko honakoa proposatzen dut:

Kasu honetan ondare kolektiboa, herriko ondarea izango da, beraientzat gertukoa delako eta hobe ulertuko dutelako. Ezezaguna izanez gero oso zaila izango baita beraiena bezala identifikatzea.

Lehenik, talde osoaren artean herriko ondaretzat hartzen ditugun txoko garrantzitsuen zerrendatze bat egingo da. Jasotako ideia guztiak mural handi batean islatuko dituzte ikaskide eta irakasleak. Bukatzeko mural hori gelan zintzilikatuko dute ikusgai egoteko.

Behin hori eginda, bigarrenik, ikasle bakoitzak berarentzat Altsasuko ondarearen txokorik garrantzitsuena dena hautatuko du eta plastikoki adieraziko du. Ikasleek

material anitzak eskuragarri izan beharko dituzte eta euren sormenaren bidez nahi duten bezala adieraziko dute aukeratutako hori.

- Babeslekuaren ideia jorratzeko jarduerak:

➤ *Jarduera: babeslekuaz hausnartzen*

Txuspo Poyoren Zuhaitz etxearen obrarekin babeslekuaren ideia datorkit burura. Esanak esan, haurrei galdera batzuk botatzearekin has daiteke jarduera hau. Hona hemen baliagarriak izan daitezkeen galdera batzuen adibideak:

- *Zer da zuentzat babeslekua?*
- *Zein da babeslekurik garrantzitsuena?*
- *Nola sentitzen zarete babesleku batean zaudetenean?*

Galdera hauek talde handian bota daitezke eta jarraian haur bakoitzak bakarka pentsa dezake. Irakaslearen eskutan geratzen da planteamendua.

➤ *Jarduera: babesleku esanguratsu bat sortzen*

Aurreko jardueran babeslekuari buruz hausnartu ostean eta ideia zehatz batzuk ondorioztatu eta gero sortze prozesuari hasiera ematea proposatzen dut. Jarduera hau taldeka egitea interesgarria izan daitekeela uste dut, baina proposamen hutsa denez taldekatze mota aukera irekia da.

Hasteko, ikasle bakoitzak (edo talde bakoitzak) berarentzat babesleku esanguratsua denaren ideiarekin zirriborroa egingo du. Zirriborroaren garapenarekin batera erabiliko dituzten materialetan pentsatu beharko dute. Behin zirriborroa eginda, gainontzeko ikasleei bere proiektua zertan datzan azalduko die.

Pauso hauek eman ostean, hiru dimentsioetara pasako gara, hau da eskultura bat egitera. Adin hauetan hiru dimentsioetan gauzak adierazteko mugak dituztela dakigun arren, ahal dena egingo dugu. Beraz, eraikitzaera pasako gara.

- Autoebaluziorako jarduerak:

➤ *Jarduera: egunerokoa itxi*

Auto-ebaluazioa egiteko, oso interesekoa izan daiteke ikasle bakoitzak prozesu guztian zehar ikusitakoaren eguneroko labur bat egitea. Horrela bada, prozesu guztian pertsonalki nola sentitu den, besteekin elkarlanean nola aritu den, zer ikasi duen, zer hobetuko lukeen eta abarren inguruan hausnartzea komenigarria da oso.

➤ *Jarduera: taldean asanblada*

Talde handian, asanblada baten bidez proiektuaren esperientziari buruz hitz egin daiteke. Egindako guztia birgogoratuko da eta horrela, talde osoaren esperientzia eta sententzioak ikusteko aukera ezin hobea suertatuko da. Ateratako ideiekin puntu indartsuak eta hobekuntzarako puntuak ikus daitezke.

Lehen Hezkuntzako seigarren mailan lantzeko jarduerak:

- Aurrezagutza jarduerak:

Laugarren mailarako egindako proposamenaren jarduera antzekoak dira. Jarduera hauen helburu nagusia ikasleek Txuspo Poyo altsasuar artistari buruz dituzten aurrezagutzak ikustea da, proposamena hauetatik abiatu ahal izateko.

➤ *Jarduera: aurrezagutzak*

Jarduera honen helburua artista honekiko hurrek dituzten ezagutzak ikustea den heinean, talde osoari galdera orokor batzuk egitea proposatzen dut. Guztien artean informazioa garatzen joango dira. Irakasleak ez du klase magistralik emango, soilik galderak bota eta erantzunak gidatuko ditu.

➤ *Jarduera: aurrezagutzen fitxa*

Aurreko jardueraren helburu bera du honakoak, ikasleek dituzten ezagutzak ikustea, hauetan oinarrituz proposamena aurrera eramateko. Fitxa batean agertzen diren galderak erantzunez egin daiteke. Betiere, komenigarria izango litzateke amaitzerakoan talde handian erantzunak komentatzea.

Hona hemen galdera horien fitxa baten adibide bat:

TXUSPO POYO ARTISTA EZAGUTZEN

Izen-abizena: _____

➤ Erantzun honako galdera hauek. Bukatzean, guztien artean komunean jarriko dugu eta erantzunak errebisatuko ditugu.

1. Nor da Txuspo Poyo?
2. Non jaio zen?
3. Non bizi da gaur egun?
4. Zer egiten du Txuspo Poyok?
5. Zer dakigu bere obraren inguruan?
6. Obraren bat ezagutzen dugu?
7. Non ikus dezakegu bere obraren bat?



Txuspo Poyo

- Artistaren inguruko informazio lortzeko jarduerak:

Jarduera hauen bidez Txuspo Poyo artista altsasuarraren biografia laburki ikusteko eta obra ezagutzeko aukera izango dute ikasleek. Informazio teoriko hau eskuratzeko, ez dut aholkatzen irakasleak honen azalpenik edo klase magistralik ematea. Proiektu honetan ikasleak subjektu aktibo eta protagonistak dira, horrenbestez beraiek eraiki beharko dute euren ikaskuntza. Modu honetan, ikasleen motibazioa handiago izango da eta jarrera aktibo eta parte hartzailea izango dute.

Informazioa bilatzeko hiru modu planteatzen ditut eta jasotako informazioarekin azkenik guztien artean txosten txiki bat egitea proposatzen dut.

Hona hemen planteamendu hori gauzatzeko ariketen proposamenak:

➤ *Jarduera: interneta baliatuz artistaren informazio eskuratu*

Ikasleek euren kabuz informazioa bilatuko dute interneten. Bilaketak egin eta gero beharrezkoak diren apunteak hartuko dituzte. Jasotako informazioa komunean jarriko dute.

➤ *Jarduera: herriko liburutegira informazio bila*

Interneten jasotako informazioaz gain, Altsasuko liburutegira joatea proposatzen dut, bertan orain dela urte askotako egunkarietan agertzen diren berriak gordetzen dituzte.

➤ *Jarduera: galdetegien bidez informazioa eskuratu daiteke*

Informazioa biltzeko azkeneko aukera jendeari galdetegiak pasaz izango da. Txuspo Poyo artista altsasuarra denez, erraza izan daiteke edonork oinarrizko galdera batzuk erantzutea. Hori bai, ikasleek jakin behar dute erantzun guztietan jasotako informazio ez dela zertan fidagarria izan behar. Hortaz, aurreko informazioarekin alderatu beharko dute.

Ikasleek galdeketetan egingo dituzten galderak planteatu beharko dituzte eta ondoren elkarrizketatuak izango diren pertsonak identifikatu behar dituzte.

➤ *Jarduera: bildutako informazio guztia elkartzen*

Aurreko hiru informazio iturrietatik bildutako informazio guztia behar bezala txukundu eta egokitu beharko dute ikasleek. Jasotako guztiarekin txosten bat egituratuko dute.


- Artistaren obra ezagutzeko jarduerak:

➤ *Jarduera: zenbait obra aztertzen*

Txuspo Poyo artistaren obran denetarik aurki daitekeenez, zenbait obra aztertzea proposatzen dut. Horretarako, ikasgelan obraren irudiak eta bideoak proiektatzea aukerarik onena dela esan beharra dago.

Zuhaitz etxea bereziki lantzea aproposa dela esan nahi dut, hurrengo jardueretan garrantzi handia izango duelako.

Jarraian erabilgarriak izan daitezkeen irudiak txertatu ditut: *Fotogramaren bilbea eta Egunkarietan egindako marrazkiak*⁵



⁵ Irudi eta bideo gehiago topatzeko Txuspo Poyoren webgunean sartu:

http://www.txuspo-poyo.com/obra_eusk.htm

- Ondarea lantzeko jarduerak:

➤ *Jarduera: norberaren ondarea eta ondarea kolektiboa, herrikoa*

Gertuko ondaretik, kolektiboaren ondarrera pasaz ondarearen ideia orokorrera hurbilpena egingo dugu. Kasu honetan, gertuko ondarea pertsonala izango da eta ondare kolektiboa herriko ondarea izango da, Altsasukoa hain zuzen ere.

Ondare pertsonala lantzeko honakoa proposatzen dut:

Ikasleak identifikatzen dituzten elementuetan pentsatzeko esango diegu, gauza materialak edo oroimenak izan daitezke. Zer eskatzen den ulertu ahal izateko irakasleak bere ondare pertsonalean garrantzitsuak diren elementuen berri eman dezake, esaterako, bere familiarekin egindako bidai bateko hegazkinaren txartela, oso garrantzitsua den lagun baten argazkia eta abar.

Pentsatzeko denbora utzi ostean, orrialde batean marrazkien bidez islatzeko eskatuko zaie. Behin hori eginda, norberak taldeari azalduko die zein elementuk osatzen duten bere ondarea eta zergatik. Amaitzeko, guztiak mural handi batean itsatsiko dira eta gelan jarriko da, guztien ondareak presente egoteko.

Ondare kolektiboa jorratzeko honakoa proposatzen dut:

Ondare pertsonala zer den ulertu eta gero, gertutik orokorrera pasako gara, hau da, ondare kolektibora. Kasu honetan ondare kolektiboa, Altsasuko ondarea izango da, beraientzat ezaguna eta gertukoa delako, hori dela medio, hobe ulertuko dute. Ondare kolektibo orokorrari buruz hitz egiten bada, ezezaguna suertatu daiteke eta oso zaila izango da ikasleek beraiena bezala ulertzea eta barneratzea.

Tailerrari hasiera emateko, lehenik eta behin, ikasle bakoitzak Altsasuko ondarea diren txokoak edota gauzak zerrendatuko ditu. Hori egin eta gero, talde guztiaren artean ateratako ideiak komunean jarriko dira eta zerrenda osatu bat jasoko da. Jarraian talde txikietan ados jarri beharko dira garrantzitsuenak diren horiek hautatzeko eta horiek irudikatzen. Sortze lan hauek talde bakoitzak zehaztuko ditu, izan ere askatasun osoa izango dute marrazki, eskultura edo dena delakoan adierazi ahal izateko.

Bukatzeko, talde guztiari azalduko diete egindako sortze lanak eta horiek islatzen dutena.

➤ *Jarduera: txangoa zuhaitz etxera*

Ondare kontzeptua ulertuta, obra zuzenean ezagutzera joateko gonbitea luzatzen dut. Zuhaitz Etxera txangoa egitea ikasteko eta aurreko kontzeptuak behar bezala barneratzeko ezinbesteko tresna bezala proposatzen dut. Proiektua obra honetan oinarritua dago eta obra hau Altsasun dagoenez aukera paregabea da.

Ondare guneeetara egiten diren ateraldiek obrarekin zuzeneko kontaktuan egoteko aukera ematen dutenez, obrarekin harremana estutzen da, baita artistarekiko gerturatzea ere.

Aurreko proposamenean (Lehen Hezkuntzako laugarren mailako ikasleena) planteatu dudana bezala, ateraldia gauzatzeko ezberdinak diren bi modu aipatzen ditut:

Lehenengo aukerarekin, ikasleek erabaki eta hautatzen dute zer ikusi edo zer ezagutu nahi duten. Horrela bada, Dantzalekura abiatuko ginateke, bertan Zuhaitz Etxea dagoelako eta bertan ikasleak behatzen utziko genituzke. Ateraldira joan aurretik gelan zer egin nahi duten zehaztu dezakete, bestela, momentuan bertan zer egin erabaki dezakete.

Aukera hau hautatuz gero, irakasleak ikasleak behaketa prozesuan gidatzea eta laguntzea proposatzen dut. Gerta daiteke, lekura iristea eta zenbait ikasle galduta bezala sentitzea. Hala bada, ikasle horiek orientatu beharko ditu irakasleak, obrara hurbiltzeko animatuz, bertara igotzeko, ukitzeko, sentitzeko eta abar planteatuz.

Bigarren aldartearekin, irakasleak prestatuko luke irteera aurretik. Behaketa bezala planteatu dezake, hau da obra eta ingurua ikertzeko helburuarekin. Horretarako irakasleak zenbait ariketa planteatu ditzake. Modu hau arrakastatsua izan daitekeela uste dut, izan ere haurrentzat behatzea eta ikerlariarena egitea oso positiboa eta motibagarria baita.

Irteera egiteko modu hau hautatuz gero, zehaztuta eraman beharko da egingo dena. Nik honakoa planteatzen dut:

Hasteko, ikasleek obra sentitzea, horretarako lehenik ingurua behatuko dute. Behin ingurua aztertuta, Zuhaitz Etxera igoko dira eta barrutik aztertuko dute. Obra ukitu, usaindu, sentitu eta abar egiteko aukera izango dute banaka zein taldeka nahi izango duten antzera. Etxearen egoera nolakoa den galdetuko zaie eta argazkiak ateratzeko proposatuko zaie.

Klasera bueltatzerakoan tailer txiki bat proposatu daiteke. Argazkiak ikusi eta hasierako egoerarekin konparatuko dira. Ondarearekiko errespetuari buruz hausnartu daiteke.

- Zuhaitz etxea errestauratzeko jarduerak:

Irteera eta gero egindako tailertxo horretan Zuhaitz Etxearen egoeraren inguruan hausnartzea proposatu zen. Hala bada, ziurrenik haurrak egoera kaskarraz konturatzen direla. Ondare herritarraren ideia barneratuta dute, baita ondare horrekiko sentimendua ere. Hori dela eta, seguruenik etxearen egoera hobetzeko gogoia piztuko zaie.

Proposatzen dudan lehengo gauza ikasleak Txuspo Poyorekin kontaktuan jartzea da, izan ere egileak honen berri izan beharko du. Horrez gain, kultur teknikariarekin ere hitz egin beharko luke eskolak, guzti hau modu legalki batean egin ahal izateko. Altsasuko ondarearen parte den artista baten obra errestauratzeari buruz hitz egiten gaude eta hori ezin da nolana egin.

Artistak erantzuna emango luke, jakin badakit gaia interesatzen zaiola. Bera izan zen ideia hau eman zidana, haren ustez Zuhaitz Etxearen egoera ez baita oso ona.

Beraz, ibilbide hasiera hau markatuta eta Txuspo Poyok eta Altsasuko Kultur Teknikariak esaten dutena kontuan hartuz, ikasleek proposatuko zuten etxolaren errestaurazioaren nondik norakoak.

- Autoebaluaziorako jarduerak:

- *Jarduera: taldeko asanblada*

Taldeak proposamenari buruz duen iritzia jakiteko oso aproposa da asanbladan hitz egitea. Horrez gain, ikasleak nola sentitu diren bakarka zein taldeka lan eginez hausnartzeko eta adierazteko baliogarria izan daiteke.

- *Jarduera: autoebaluazio fitxa*

Proiektuan parte hartu duen ikasle bakoitzak autoebaluazio fitxa bate dezala komenigarria da. Bertan, ikasleak hausnartuko du proiektu osoari buruz.

Hurrengo fitxa honetan proposatu dudana autoebaluaziorako galdera posible batzuk:

3.2.6 Ebaluazioa

Ebaluazioari dagokionez, aurreko proposamenean zehaztutako berdina proposatzen dut. Proiektu honetan ez zaio soilik garrantzia emango azken emaitzei, proiektu osoan zehar ematen den prozesuak garrantzia izango du eta hori izango da baloratuko dena.

Ez da azterketa finalik egingo izan ere, ez dut uste, amaierako azterketa baten bitartez ikasleak gai direnik proiektuan zehar bereganatutako ikaskuntza transmititzeko. Honen aurrean ikasleentzako motibagarria eta askoz aberasgarria izango den metodologia bat zehaztu da, eta prozesu osoan zehar izango dira ebaluatuak. Jarduera bakoitza modu ireki batean proposatuta dagoenez, ez daude helburu zehatz batzuk lortzera bideratuak.

Prozesuan zehar ikasleek izango duten jarrerak garrantzi handia izango du ebaluaketarako, jarrera aktibo eta parte hartzailea izan beharko dute. Bakarka lan egiteaz gain, talde lanak ere pisu handia dauka proiektu honetan, horregatik lankidetzarako aproposak diren jarrerak demostratu beharko dituzte.

Proiektuen bidezko ebaluazioak proposatzen duen bezala, kasu honetan auto-ebaluazioak garrantzia izango du. Bukatzeko, oso garrantzitsua eta ezinbestekoa da talde moduan asanblada baten bidez proiektu guztia baloratzea, ikasleek zer sentitu duten, zer ikasi duten eta abar jakin ahal izateko.

Bestetik, jarduera bakoitza egiten den heinean, irakasleak ebaluazio egitea aproposa dela esan beharra dago.

CONCLUSIONES

Después de documentarme y reflexionar mediante el análisis bibliográfico, he podido comprobar que el arte posee funciones muy valiosas y enriquecedoras que deben transmitirse mediante la educación artística. Así, es necesario decir que el arte colabora en el desarrollo de cada individuo, mejorando la creatividad, la percepción, la sensibilidad, la personalidad, la expresión y comunicación así como los sentimientos. En definitiva, el arte aporta una mejor calidad de vida a las personas.

Aunque el arte posea todas estas funciones, en mi opinión no cabe duda de que el arte por sí mismo también tiene importancia y valor suficiente como para ser reconocido. Tras haber profundizado en ello, es imposible no creer en la importancia del arte en nuestra educación, y considero que toda la educación se puede impartir a través del arte.

Sin embargo, por muy importante que sea el arte en la educación, es esencial señalar que la situación de la educación artística actual es más bien preocupante. Desde mi punto de vista, hoy en día se tiende a simplificar la educación artística plástica. Es decir, hay un gran abismo entre lo establecido en el currículo de educación y lo que se desarrolla realmente en la práctica en las escuelas.

A mi entender, mediante una buena metodología se puede llevar a cabo una enseñanza artística que responda a las necesidades de los niños/as de Educación Primaria. El/la docente es un modelo a seguir por parte del alumnado en todos los sentidos, por ello debemos tener gran capacidad de cambio y adaptación, así como mostrar nuestra capacidad para reflexionar sobre la educación artística que queremos transmitir a nuestros alumnos/as.

He podido comprobar que una forma excepcional de cambiar la educación artística es la de proyectos de trabajo; en esta metodología se parte desde un tema cercano y de interés de los alumnos/as, garantizando así su mayor participación y motivación. En mi caso, mediante una propuesta de recursos didácticos que se basa en la obra de dos artistas contemporáneos y locales he llegado a la conclusión de que existe una

variedad muy extensa de temas y de formas a la hora de poder trabar con el alumnado alsasuarra:

Por un lado, me he dado cuenta que mediante la obra de Txuspo Poyo se puede trabajar el respeto y sensibilización hacia el patrimonio local. La idea de restaurar la casa árbol es una forma adecuada para ello, ya que los alumnos/as serian quienes lo hicieran y de esta manera asimilarían un sentimiento basado en el respeto hacia el patrimonio de su pueblo. Esta idea se podría realizar en conjunto con las escuelas de Educación Primaria de Alsasua, Colegio Público Zelandi, Ikastola Iñigo Aritza y Colegio Sagrado Corazón, así como con colectivos populares y Ayuntamiento de Alsasua. Sería interesante proponer un trabajo en común de todos los vecinos/as junto con el alumnado. En este pueblo existe una costumbre de que los/as habitantes trabajen conjuntamente por el pueblo; la propuesta de restauración de la obra pública de Txuspo Poyo puede ser una herramienta muy enriquecedora para fomentar esta tradición a los niños/as.

Además, la casa árbol da pie a trabajar la idea del refugio. En la enseñanza primaria se le da mucha importancia al concepto del refugio, ya que mediante éste se puede dar a entender la necesidad de respetar y valorar los refugios de los demás, ya sean de personas o animales. Asimismo, discuro que sería prospero para reflexionar cómo les gustaría vivir y cómo les gustaría que fuese el entorno ideal de sus refugios.

Por otro lado, la obra de Dora Salazar puede ser muy significativa para trabajar la autoestima y la identidad de cada individuo. Para ello, puede ser adecuado trabajar las formas de expresar el cuerpo quebrando los estereotipos y roles que impone la sociedad de hoy en día en ellos; cada niño/a fortalecerá su autoestima y conseguirá otra concepción de si mismo/a. También, mediante un proceso creativo da pie a expresar diferentes sentimientos, como la capacidad crítica o el rechazo, así como la admiración, cariño o respeto hacia ciertas cosas.

Para finalizar es necesario señalar, que como hemos podido ver, no hay duda de que mediante la enseñanza basada en lo cercano, se pueden trabajar muchas ideas, temas, valores, sentimientos etc. Además se garantiza una mayor motivación de los alumnos/as, así como una mejora del desarrollo personal y artístico.

AGRADECIMIENTOS

Para finalizar, me gustaría agradecer a aquellas personas que me han proporcionado ayuda de diferente manera. Por un lado a la técnica de cultura de Alsasua, por facilitarme información sobre el proyecto realizado con la casa árbol de Txuspo Poyo. Por otro lado, a la técnica de didáctica del Museo de Navarra, por darme a conocer un proyecto didáctico que realizo Dora Salazar. Además, a la antigua directora de Iñigo Aritza Ikastola por la generosidad de contarme como desarrollaron un proyecto con Dora Salazar. Me gustaría agradecer a estos dos grandes artistas su desinteresada ayuda y colaboración; especialmente a Txuspo Poyo por su paciencia y dedicación.

ERREFERENTZIAK

- Agirre Arriaga, I. (1997). Praktikak: ikonoteka baten antolakuntza. *Hik Hasi*.
- Agirre Arriaga, I. (2000). El estereotipo plástico: entre la creatividad y la identificación cultural. Pamplona: Universidad Pública de Navarra (UPNA)
- Agirre Arriaga, I. (2009). Sobre los usos del arte en la escuela infantil. Pamplona: Universidad Pública de Navarra (UPNA)
- Bitartean. (2007). *Artea ikasbide. Ondarea eta gizartea*. Pamplona.
- Efland, A. (2002). Las artes y la cognición: un argumento cognitivo a favor de las artes. En *Arte y cognición*.
- Eisner, E. (1972). *Educar la visión artística*. España. Paidós
- Fontal Merillas, O. (2006). Reflexionar en torno a una educación artística de carácter cultural-patrimonial en los museos de arte. En *Artea ikasbide. Ondarea eta gizartea*.
- Fontal Merillas, O. (2008). Lo patrimonial: un perfume cautivador. En *Hacia una educación artística patrimonial*.
- Freedman, K. (2002). Cultura visual e identidad. En *Cuadernos de pedagogía*.
- Gardner. (1993). La edad del oro del dibujo. En *Arte, mente y cerebro*. Barcelona. Paidós
- Gutiérrez Párraga, T. (2008). La necesidad pedagógica del arte contemporáneo. En *El arte contemporáneo en la educación artística*. Eneida
- Hernández, F. (2002). Educación y cultura visual: repensar la educación de las artes visuales. *Revista Aula de Innovación Educativa*.
- López Fdz. Cao, M. (2010). *Compartir placer, dibujar el cuerpo, montar un cerco*. Eneida.
- López Fdz. Cao, M. (2010). *Educación, creación e igualdad*. Eneida.
- López, E. (2005). Trabajo de investigación. Universidad de Barcelona
- Lowenfeld, V. (1977). Desarrollo de la capacidad creadora. Buenos Aires. Kapelusz
- Marín Viadel, R. (1991). ¿Por qué hay que enseñar las artes plásticas? En *¿Qué es la educación artística?* Sendai

Marín Viadel, R. (2003). Estructura y componentes del currículo de Educación Artística. En *Didáctica de la educación artística*. Madrid. Pearson

Morejón Corredera, L. (s.f.). Aprendiendo desde los bordes de la educación artística: una experiencia en la escuela primaria. Universidad de Barcelona

Read, H. (1973). *Educación por el art*. Buenos Aires. Paidós

Bestelako erreferentziak:

Centro de arte contemporáneo Huarte. (s.f.). Obtenido de <http://www.centrohuarte.es/eu/hezkuntza/vaca/vaca-ii/>

Marín Medina, J. (10 de 1 de 2001). Dora Salazar, sobre la identidad. El cultural

NAEA, National Association for the Education in the arts. (1998).

Poyo, T. (s.f.). *Txuspo Poyo*. Obtenido de http://www.txuspo-poyo.com/cv_eusk.htm

Robinson, K. (2006). Las escuelas matan la creatividad. V. TED Entrevistador

Salazar, D. (s.f.). *Euskonews&media*. Obtenido de <http://www.euskonews.com/0032zkb/elkar3201es.html>

Wikipedia. (s.f.). Obtenido de http://eu.wikipedia.org/wiki/Dora_Salazar

ERANSKINAK

Eranskin I

ARTE PROIEKTUA DBH 2. MAILA

2012

**1. PROIEKTUAREN ETA ARTELANAREN
AURKEZPENA**


EGUNA:

- Sakanako artisten obretan oinarritutako proiektua
- Artistak: Dora Salazar, Anda, Txuspo eta (Angel Bados)
- Mailak: Txioka 2 urte, HH, LH, DBH talde bana gutxienez.
- Metodologia: Talde txikiak.

DBH

"Tener alas no implica saber volar"

DORA S.



2. IDEAIA JASA

EGUNA: 2012-ko otsailaren 13a/13a.

- Poppin bat biluzirik eta bururik gabe hegoekin.
- Bi gela horma bat erdian, gela iluna eta gela argia. Horman ate bat kanpau batekin lotuta. Gela ilunean jende gaztea, eta bariatako bat atletik tiraketa, askatasunera ateratzen.
- Armar bat hegan.

3. IDEAIA ETA HONEN DESKRIBAPENA



EGUNA: 2012-ko otsailaren 13a



A. IDEAIA

Askatasunera atea.

B. DESKRIBAPENA

Bi gela eta horma bat erdian, gela iluna eta gela argia. Horman ate bat kanpau batekin lotuta. Gela ilunean jende gaztea, eta bariatako bat atletik tiraketa, askatasunera ateratzen.





6. PLANIFIKAZIOA **EGUNA:** 201-ko otsailaren 26a

	ZEREGINAK	ARDUREN BANAKETA	
Otsailak 26			
Otsailak 27	entzara, marrotxak, denak		
Otsailak 28	Puzteak marrotxak	Denak	
Otsailak 29, 30	Denak marrotxak Alehon ikhes jara eta puzteak ikusi	Denak	
Martxoak 1, 2	Ikasle jara eta berrala jara erago gabe.	Denak	51a beste talde batzuen bidez dago

7. MATERIALA EKARRI **EGUNA:** 201-ko otsailaren 26

TALDEKIDEAK	EKARRI BEHAREKO MATERIALA	DATA
bonia	Puzteak	Otsailak 26
bonia	Kontaxoa	Otsailak 26

8. PLANIFIKAZIOA BIRPASATU

9. ARTELANA ERAIKI				
10. AMAIERA EMAN				
LAN EGUNAK	EGINDAKOA	HURRENGO EGUNERA KO?	ARDUREN BANAKETA	OHARRAK
Otsailak 26	Kontratu berria		Derak	
Otsailak 28	Kontratu berria		Nola Soliste	
Otsailak 39				
Martxoak 1	Kontratu berria? Gurekin berria		Derak	
Martxoak 4	Kontratu berria		Derak	

Martxoak 5	Ezkerreko 1.6		Derak	
Martxoak 6	Ezkerreko		Derak	
Martxoak 7	Taldea 1.6?		Derak	
Martxoak 8	Kontratu berria		Derak	

